

LITERATURA UNIBERTSALA:  
LITERATURA EROTIKOA.  
BATXILERGOKO 2. MAILA

Jaione Goienola  
Itziar Madina  
Carmen Mendiguren  
Txaro San Pedro  
Amaia Zelaia

## AURKIBIDEA:

1.SARRERA.....	3
2. HELBURUAK.....	5
3. EDUKIAK.....	6
4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	7
5. DENBORALIZAZIOA .....	9
6. LAN-SEKUENTZIAK	
1. LAN-SEKUENTZIA: GIROTZEA.....	10
2. LAN-SEKUENTZIA: MARKO HISTORIKOA .....	21
3. LAN-SEKUENTZIA: POESIA ETA KANTAGINTZA .....	29
4. LAN-SEKUENTZIA: NARRAZIO EROTIKOA .....	49
5. LAN-SEKUENTZIA: EBALUAZIOA .....	72
7. BIBLIOGRAFIA.....	76

## 1.- SARRERA:

Erotismoa arte-adierazpen guztietan agertzen zaigu. Literatura erotikoa ere, garai guztietan eta munduko edozein lekutan aurkitzen dugu, agerian ez bada, ezkutuan. Famatuak dira duela bi mila urte jasotako Kamasutra indiarraren idazkiak eta irudiak, XVIII. mendeko Sade Markesaren obra (eskandalagarria bere garaian) edo XIX. mendean Frantzia eta Britainia Handian loratu zen literatura erotikoa.

Euskal literaturan ere sarritan aipatzen dira zenbait idazleren poema erotikoak, hala nola Etxeparerenak, Frai Bartolomeerenak eta Jon Mirandererenak, baina aipamen horiek ez dira heltzen gure ikasleen ikasliburuetara. Izan ere, horietan nekez topatuko dugu LITERATURA EROTIKOA gaitzat duen atalik; bai, ordea, beste atal batzuk: Errealismo magikoa, Literatura soziala, Errealismo zikina...

Azken boladan, literatura erotikoen inguruko kezka eta argitaratzeko nahia nabarmenki handitu da. Hainbat herritan topatuko ditugu ipuin erotikoen literatura-lehiaketak, maitasun-gutunenak zein SMSnak... Liburu-bildumak ere egin izan dira, idazleen topaketak, jendaurreko irakurketak, eta abar. Baina ekoizpen hori guztia, iristen al da gure ikasleengana? Horren berri ematen al zaio ikasleari? Bada, erantzuna erraza bezain sinplea da: ez.

Helburu horrek kitzikatuta ekin diogu hurrengo orrialdeetan garatuko dugun proiektu honi. Lan hau, jakina, ez da literatura erotikoen gaineko tratatu bat, gure asmoa xumeagoa da: Batxilergoko bigarren ikasturteko ikasleari (Literatura Unibertsala hautatu duen ikasleari) gai honetan sakontzeko abiapuntua ematea. Izan ere, proiektuan testu batzuk besterik ez dira jorratuko, baina nork bere kabuz sakontzen jarraitzeko aukera anitz ere plazaratuko ditugu.

Ikasgai horren barruan helburua bikoitza da: alde batetik, Batxilergoko ikaslearen **gaitasun literarioa landu**; bestetik, literaturaren ezagutzaren bitartez, **gaitasun komunikatiboa areagotu**.

Gaitasun literarioari dagokionez, bi puntu nabarmendu nahi genituzke: idazleei arreta berezia jarri diegu ( horien bizitza, nahiak...), baina, batez ere, gozamen estetiko eta artistikoari jaramon egin diogu.

Literatura-testuak aukeratzekoan, erotismoa jorratu duten zenbait idazle hautatu ditugu, agian ez esanguratsuenak zenbaiten ustetan, baina ikasleari testu-aukera zabala emango diotenak.

Argi dago motibazioa ikaste-prozesuan berebizikoa dela. Hori horrela izanik, lehendabiziko saioetan motibazioa jorratuko dugu, ikaslearen jakin-mina piztea garrantzitsutzat jotzen baitugu.

Horren ostean, eduki batzuk azalduko ditugu, literatura erotikoa historian zehar izan duen bilakaera ezagutarazteko asmoz. Marko teoriko horrek ez du esan nahi irakaslearen azalpen magistral hutsa bultzatuko dugunik; saiatuko gara informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) ahalik eta gehien erabiltzen eta ikasleari askatasuna ematen, marko teoriko horretan nahi beste sakontzeko.

Marko historikoan ikusiko dugunak praktikara eramango gaitu ezinbestean. Horrela, jarraian, garapen-jarduerak eskainiko zaizkie ikasleei. Saiatuko gara jarduera horiek ikasleentzat esanguratsuak eta haien garapen-mailarako egokiak izan daitezen. Ariketa globalak egingo ditugu gehienbat, pentsaera konplexua suspertzen dutenak; batzuk gidatuak izango dira (hasierakoak, batez ere), eta beste batzuk praktika askea eskatzen dutenak.

Sakontzeko jarduerak ere proposatuko ditugu, gorago esan bezala, eta horien bidez ezagupen osagarriak lortzera bideratutako ariketak bilduko ditugu.

Gure proiektuaren nondik norakoa azaldu ostean, murgil gaitzen, bada, literatura erotikoaren ur epeletan...

## 2. HELBURUAK

1. Literatura erotikoaren testuak edo pasarte esanguratsuak esanahiaz jabetuz irakurtzea eta interpretatzea, idazlanen testuinguru historiko eta sozialarekin erlazionatzeko, eta konbentzio soziokulturalek duten balio erlatiboa ulertzeko.
2. Literatura erotikoaren eta bestelako arte-adierazpenen (musika, pintura, eskultura...) arteko harremanak aztertzea -adibide esanguratsuak erabiliz-, ikusteko zein diren adiera molde horien artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak.
3. Literatura erotikoa ulertzeko, beste irakasgai batzuetan literaturaz ikasitakoa modu autonomo eta kontzientean erabiltzea.
4. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) eta bibliografia-iturriak modu kritiko, autonomo eta eraginkorrean erabiltzea, literatura-gaiei buruzko informazioa lortu, interpretatu eta aztertzea.
5. Literatura erotikoaren gaineko ariketa akademikoak egiteko eta ezagutzak eskuratzeko behar diren jardueretan parte hartzea, modu aktibo eta egokian.
6. Plangintza bati jarraiki, ahozko nahiz idatzizko hitzaldiak prestatzea; hitzaldi horiek modu kritikoan berrikustea, komunikatzeko eraginkorrak izan daitezen.
7. Literatura erotikoa bakarka nahiz taldeka irakurriz gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko.
8. Literatura-testuak kritikoki balioestea, banaka nahiz taldeka egindako sorkuntzak eta sentipenak direla ulertzeko, eta gizakiok errealitatea ulertzeko egindako ahaleginen fruitu direla konturatzeko.

### 3. EDUKIAK

1. Literatura erotikoaren zenbait testu adierazgarri banaka nahiz taldean irakurtzea.
2. Testuak irakurriz, literatura erotikoaren oinarriko ezaugarriak identifikatzea.
3. Idazlerik esanguratsuenak irakurriz, testu horiek sortu diren garaiko gertakari historiko eta aldaketa soziologiko nagusiak zein izan diren ikustea.
4. Hainbat pasarte irakurriz, literatura erotikoan agertzen diren gaiak zein diren antzematea.
5. Literatura erotikoaren testuak aztertzea, aintzat hartuta genero bakoitzari dagozkion egitura-ezaugarriak eta erabilitako literatura-baliabideak.
6. Literatura-lanak, zinema, musika, pintura... arlokoekin alderatzea.
7. Literatura-testuen esanahia dela eta, iritziak trukatzeko eztabaidetan eta ahozko iruzkinetan parte hartzea.
8. Elkarri eragiteko, komunikazio-estrategiak erabiltzea.
9. Literatura erotikoari buruzko lanak egiteko, informazioa bilatzea, aukeratzea eta lantzea.
10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) modu etikoan erabiltzea (aipuak, egile-eskubideak...).
11. Irakurritako testuen azterketaz eta interpretazioaz, lan akademiko egokiak, kohesionatuak eta koherenteak egitea, idatziz nahiz ahoz.

### 3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Literatura erotikoa gozatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren nortasuna, kultura eta gizartea eratzeko tresna moduan erabiltzea. Idazlanak sortu zireneko testuinguru historiko eta sozialarekin erlazionatzea, eta konbentzio soziokulturalek duten balio erlatiboa ulertzea.

- 1.1. Ea, gozatzeko, bere kasa aukeratzen dituen irakurgaiak.
- 1.2. Ea testuen edukia norberaren bizipenen eta literaturaz duen ezagutzen arabera interpretatzen duen.
- 1.3. Ea edukia ulertuz irakurtzen dituen programatutako lanak, eta ea ikasitakoa haiek hobeto ulertzeko erabiltzen duen.
- 1.4. Ea ulertzen duen irakurtzeak lagundu egiten duela norberaren nortasuna eta munduaren gaineko ikuspegia aberasten.
- 1.5. Ea azaltzen dituen literatura erotikoen testuek erakusten dituzten konbentzio soziokulturalen eta lanok sortu dituen gizartearen arteko loturak.
- 1.6. Ea dakien interpretatzen literatura-lanak beren testuinguru historiko, sozial eta kulturalaren barruan.
- 1.7. Ea dakien alderatzen hainbat testuingurutan sortutako lanak, antzekotasunak eta desberdintasunak adieraziz.

2. Literatura erotikoen lan laburrak eta pasarte esanguratsuak aztertzea eta iruzkintzea, eta lan horien edukia interpretatzea.

- 2.1. Ea aurkitzen dituen testuetan zenbait gai zehatz.
- 2.2. Ea dakien zein diren generoaren ezaugarriak.
- 2.3. Ea dakien testuen iruzkina egiten, oinarrizko ezaugarriak eta baliabide estilistikoak identifikatuz.

3. Literatura erotikoen zenbait lan beste arte-adierazpide batzuekin erlazionatzea, eta adierazpen-hizkuntzen artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzea.

- 3.1. Ea dakien aztertzen artelanen arteko loturak.

4. Literatura erotikoen lanak balioestea, ahoz nahiz idatziz, ideia eta sentipen kolektiboen topaleku gisa, eta gure esperientziak zabaltzeko baliabide gisa.

- 4.1. Ea jakin-mina eta jarrera ireki eta kontzientea erakusten duen literatura erotikoen gainean.
- 4.2. Ea, azalpenetan, irakurtzeko eta literatura erotikoen azken berriak jakiteko gogoia erakusten duen.
- 4.3. Ea bere iritzia ematen duen, hainbat euskarri erabiliz, irakurritako literatura-lanei buruz, ahoz nahiz idatziz.
- 4.4. Ea arrazoitzen dituen bere iritziak.
- 4.5. Ea antzematen dituen, irakurritako lanetan, sentipenak, pentsamoldeak eta balio kolektiboak.
- 4.6. Ea lotzen duen idazlanetako edukia bere bizipenekin.

5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) modu kritiko, autonomo eta eraginkorrean erabiltzea, literatura-gaiei buruz informazioa bilatzeko eta aditzera emateko.

- 5.1. Ea informazioa modu autonomo eta kritikoan bilatzen duen.
- 5.2. Ea dakien aukera aurreratuak erabiltzen informazioa bilatzeko.
- 5.3. Ea dakien informazio egokia aukeratzen, eta fidagarria ote den baieztatzen.
- 5.4. Ea aitortzen dituen erabilitako informazio-iturriak.
- 5.5. Ea IKTak erabiltzen dituen informazioaren berri emateko.

6. Elkarrizketak erabiltzea irakurritako testuak ulertzeko eta ezagutzak eskuratzeko.

- 6.1. Ea parte hartzen duen modu aktibo eta egokian, gogoeta eginez, literatura erotikoari buruzko elkarrizketetan.
- 6.2. Ea bere iritzia ematen duen irakurritako testuei buruz.
- 6.3. Ea alderatzen dituen era bateko eta besteko ikuspegiak, eta berea berrikusten ote duen.
- 6.4. Ea ondorio arrazoituak ateratzen dituen landutako literatura-alderdiei buruz.

7. Eskema bati jarraiki, testu baten azterketa eta iruzkinak egitea, ahoz nahiz idatziz, ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiliz.

- 7.1. Ea lana modu autonomoan planifikatzen duen.
- 7.2. Ea informazio-iturriak kontsultatzen dituen, eta informazio esanguratsua aukeratzen duen.
- 7.3. Ea dakien hainbat iturritatik jasotako informazioa laburtzen.
- 7.4. Ea dakien edukia egituratzen, aldez aurretik finkatutako eskeman oinarrituta.
- 7.5. Ea dakien zein den literatura-lanaren egitura orokorra.
- 7.6. Ea dakien lanaren edukia interpretatzen, haren testuinguru historiko eta literarioari lotuta.
- 7.7. Ea dakien zein diren erabilitako hizkuntza-baliabideak.
- 7.8. Ea dakien hizkuntza-maila eta literatura-terminologia egokiak erabiltzen.
- 7.9. Ea berrikusten dituen bere lanak, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna hobetzeko.



## DENBORALIZAZIOA

Jarduerak	Denbora
<p><b>1. Lan-sekuentzia. Girotzea</b></p> <p>1. Jarduera. Motibaziorako galdetegia                  2. Jarduera. Hiztegia                  3. Jarduera. Testu-atalak literatur erotikoa ote?</p>	2 saio
<p><b>2. Lan-sekuentzia. Marko historikoa</b></p> <p>1. Jarduera. Teoriaren irakurketa eta azalpena                  2. Jarduera: Artea eta erotismoa                  3. Jarduera. Literatura erotikoaren adierazpenak                  4. Jarduera. Euskal Literatura erotikoaren hastapenak.</p>	2 saio
<p><b>3. Lan-sekuentzia. Poesia eta kantagintza</b></p> <p>1. Jarduera. Hainbat egile ospetsuren adibideak                  2. Jarduera. Poema batzuen baliabideen azterketa: gaia, lexikoa...                  3. Jarduera. Ekoizpena: Poemak sortu.                  4. Jarduera. Ahozko literatura erotikoa                  5. Jarduera. Ekoizpena: Euskal kanta erotiko baten aukeraketa                  6. Jarduera. Ahozko jardunaren ebaluazioa</p>	4 saio
<p><b>4. Lan-sekuentzia. Narrazio erotikoak irakurtzen</b></p> <p>1. Jarduera. Hainbat narrazio erotikoen adibideak                  2. Jarduera. Narrazio erotikoaren ezaugarriak eta iruzkinak                  3. Jarduera. Testu-iruzkina</p>	2 saio
<p><b>5. Lan-sekuentzia. Ebaluazioa</b></p> <p>1. Jarduera. Unitatearen ebaluazio orokorra                  2. Jarduera. Auto-ebaluazioa                  3. Jarduera. Ikaslearen ekoizpena. Amets erotikoa idatzi</p>	2 saio

## 1. LAN-SEKUENTZIA. GIROTZEA

## 1. JARDUERA. MOTIBAZIORAKO GALDETEGIA

I. FITXA: Neurtu literatura eta erotismoaren inguruan dakizuna.

1. Erantzun honako galdera hauei:

Bai                      Ez

1. Inoiz irakurri duzu olerki erotikorik?		
1.1. Irakurri baduzu, aipatzekoa iruditu zaizu adjektibazioa?		
2. Inoiz irakurri duzu ipuin erotikorik?		
2.1. Irakurri baduzu, fantasiaz betea iruditu zaizu?		
3. Inoiz irakurri duzu komiki erotikorik?		
3.1. Irakurri baduzu, irudiak sexistak iruditu zaizkizu?		
4. Mundu osoko literatura erotikoa antzekoa da?		
4.1 Irakurri duzu beste lurralde batzuetako literatura erotikorik?		
5. Literatura erotikoa gaur eguneko kontua al da?		
6. Interneten aurki daiteke literatura erotikorik?		
7. Literatura erotikoa lotsagarria, debekatzeko modukoa, al da?		

2. Zer da, zure ustez, literatura erotikoa?

- 1 Esku bakarrez irakurtzen den literatura.....BAI /EZ
- 2 Erotismoa saihesten ez duen literatura.....BAI /EZ
- 3 Goxo-goxo irakurtzen den literatura.....BAI /EZ
- 4 Munduko sexu-ohiturak ezagutzeko irakurtzen dena.....BAI /EZ
- 5 Kiosko eta gasolindegietan erosten den literatura.....BAI /EZ
- 6 Irakurtzean, begiak ere dizdikza jartzen dizkizun literatur.....BAI /EZ
- 7 Azaleko eta funtsik gabeko argumentua duena .....BAI /EZ
- 8 Fantasiak sekulako garrantzia duen literatura .....BAI /EZ
- 9 Naturala eta ondo idatzitako pasarte erotikoduna .....BAI /EZ
- 10 Ortografiak, gramatikak eta semantikak garrantzirik ez dutena ...BAI /EZ

3. Zer aurkitzen da literatura erotikoa?

	Beti	Gutxitan	
Argazki erotikoak			
Pasarte pornografikoak			
Ligatzeko trikimailuak			
Literatura erotikoa idazten duten idazleek ezizena erabiltzen dute, ez dute benetako izena jartzen.			
Literatura erotikoa <i>ni poetikoa</i> gizona da, eta <i>zu poetikoa</i> emakumea			
Erabiltzen den hiztegia (buztana, zakila, bular, sabel, ezpain, esku...) izaten da.			
Erregistro formala erabiltzen da nagusiki.			
Sexologoek hitz zientifikoak jositakoak dira.			
Prostituzio mundua agertzen da.			
Literatura erotikoa zeregina da pertsona bakoitzak dituen fantasiak aberastea eta berriei bide ematea.			
Eginkizun pedagogikoa du.			
Erotismoa delikatu, poetikoa eta liluragarria da.			
Literatura erotikoa hizkuntza sinplista eta hizkera zuzena erabiltzen da.			
Gai bakarra egoten da: sexua.			
Literatura erotikoa helburua da egintza sexualak deskribatzea.			
Literatura erotikoa "lehen aldia" mitifikatuta dago.			
Istoriak sinesgarriak dira.			
Tabuz eta aurreiritziz beteta dago.			

4. DEBEKUA.

Estatu batzuek liburu erotikoak eskandalagarri kontsideratzen dituzte, eta saltokietan liburuak saltzeko eta irakurtzeko debekua inposatu dute.

Zergatik uste duzu gertatzen dela hori

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....

## 5. EROTISMOA ZURE EGUNEROKOAN

5.1. Idatzi duzu inoiz pasarte (posta elektronikoa, sms, gutun, olerki, ipuin, narrazio) erotikorik

	BAI	EZ
5.1. Idatzi duzu inoiz pasarte (posta elektronikoa, sms, gutun, olerki, ipuin, narrazio) erotikorik?		
5.1.1 Zure ama-hizkuntzan?		
5.1.2 Beste hizkuntza batean? Zeinetan?.....		
5.2. Jaso duzu inoiz pasarte (posta elektronikoa, sms, gutun, olerki, ipuin, narrazio) erotikorik? Jaso baduzu, nolakoa izan da? .....		
5.3. Ohikoa al da erotismoa publizitatean? Baietz uste baduzu, adibideak aipatu .....		
5.4. Filmek pasarte erotikoak izaten dituzte? Zein filmetako pasarteak aipatuko zenuke adibidez? .....		

2. Jarduera. Hiztegia

2. FITXA: HIZTEGI EROTIKOA. BERBAK ETA ESAMOLDEAK

2.1. ariketa. Zer dakarkizute burura honako hitz edo esaldi horiek?:

ZAKILIXUT	
<a href="#">"ALGUIEN DESEA CONOCERTE" (SMSa)</a>	
<a href="#">KAMASUTRA</a>	

2.2. ariketa. Bila ezazu BERBA hauen esanahia:

SANTA AGEDA JO	
ISURI	
BILUZGORRI	
BOLLIKAOA	
BUSTI	
DI-DA EGIN	
DUINTASUN	
ETZAN	
GELA ILUNA	
GOXATU	
IDISKOA IZAN	
JOLASTU	
MARRUBIAK	
POT EGIN	
ZERUAN EGON	

IRAKASLEARENA  
**ERANTZUN-ORRIA**

2. FITXA: HIZTEGI EROTIKOA. BERBAK ETA ESAMOLDEAK.

2.2. ariketa. Bila ezazu BERBA hauen esanahia:

SANTA AGEDA JO	Kanpaia jo. Masturbazioa burutu
ISURI	Eiakulatu
BILUZGORRI	Biluzik
BOLLIKAOA	Nerabe samurra eta gustagarria
BUSTI	Larrua jo. Hazia isuri
DI-DA EGIN	Orgasmoa presaka eta korrika lortu
DUINTASUN	Begirune, errespetu
ETZAN	Larrua jo
GELA ILUNA	Modako dantzalekuetan eta bestelako lokaletan egon daitekeen gela iluna
GOXATU	Berariaz ohaideari atsegin sexuala sorrarazteko egiten den borondatezko sexu-jarduna
IDISKOA IZAN	Oso gizon ederra eta erakargarria izan
JOLASTU	Norbaitekin harreman sexualak burutu. Sexukeriatan jardun
MARRUBIAK	Titiak
POT EGIN	Musu eman. <i>Pott egin</i>
ZERUAN EGON	Oso atsegin handia edo oso egoera gustagarria adierazten duen esamoldea

2.3 ariketa. Erantzun honako galdera hauek:

Ezagutzen zenituen aurreko taulan ageri diren hitz eta esamolde guztiak?

.....  
.....

Egokiak al dira berba horiek guztiak testu erotikoetan erabiltzeko?

Bai erantzun baduzu, zeintzuk dira egokiak? Zergatik?

.....  
.....

Ez erantzun baduzu, zeintzuk ez dira egokiak? Zergatik?

.....  
.....

Ezagutzen duzu literatura erotikoa erabil daitekeen beste hitz edo esamolderen bat? Zein? .....

.....

### 3. JARDUERA. TESTU-ATAL HAUEK EROTIKOAK OTE?

3.1. ariketa . Irakur itzazu hurrengo testu-atalak. Zein da literatura erotikoa? Zein ez? Zergatik?

#### 1. MEABE, Miren Agur: *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri, 2002.

"Zeru izarratuaren azpian"

Txorimalo-mozorroak kendu genituen, bakoitzak geurea, geldiro-geldiro. Titiak esku-gosez neuzkan. Alainez bularretakoaren tiranteetako bat jaitsi zidanean, amodioaren pindarrek leher egin eta itsasgoran etorri zitzaizkigun beso artera, olatuen ziprztinekin batera hotz eta bero, mutu eta hiztun, bortitz eta samur. Alain geratu egin zen une batez. Begietara so egin zidan. Eta "bai" esan nion.

#### 2. MINTEGI, Laura: *Ecce homo*, Txalaparta, 2009.

"Emakumeok ez dugu neurtzen feminitatea zenbatekin oheratzen garen zenbatuta, feminitatea ez delako neurtzen ohean. Ardura handiagoa jartzen dugu hurbilketarako protokoloan, jendeari entzuteko moduan, aurretiko planifikazioan, esandako eta entzundako hitzetan, keinu adierazgarrietan. Oheratzea amaierakoa da, agerikoa, ez da ezinbestekoa. Emakumeentzat gainera, gizonak ez dira garaikur. Emakume gehiegi ezagutzen dut beren burua gutxietsi eta gizon desagokiari bizitza osoa eskaini diotenak."

#### 3. GONZALEZ, Sonia: *Ugerra eta Kedarra*, Txalaparta, 2009.

Ikusi egin zaitu. Badakizu ikusi egin zaituena. Tabernara sartu orduko, zuzendu du begirada. Etxean asperturik, noraezean hasi zara estratan beheara, neoizko letrero handidun zulo honetaraino. Ikusi egin zaitu. Edalontziaren isurki horixkaren atzean ezin izan duzu zeure irudia ezkutatu, zaintzen duzun barratik guztiz agerikoa izan zara bere begientzat. Hala ere, ezikusiarrena egiten ari da. Zeu ere bai. Despiste keinua ahalegindu da irudikatzen eta, aitzitik, iheskortasuna da aurpegian marraztea lortu duen bakarra, zeu ere bere presentziaz ohartu zarela badakiela argi utzirik. Axierrekin dago.

#### 4. RODRIGUEZ, Eider: *Eta handik gutxira, gaur*, Susa, 2004.

Bero ikaragarria egiten zuen barrakoian, hezea, pisua. Hasieran izerdi tantak iruditu zitzaizkion, baina ez, ibilerarekin aldi berean beldurra eta gorespina sortzen zituen emakume hura haurtxo baten antzera ari zen negarrez. Besarkatu besterik ezin izan zuen egin, besarkatu eta bere ilea musukatu, kobrezko ile leuna hatz artetik isurtzen utzi. Bere begietatik edan nahi zuen, bere mingainaz gogaitu, baina horren orde, Zer duzu? galdetu zion, egindako galderarekin ez oso konbentziturik. Hirugarrenaren izena ahoskatu zuen, maitalearekin harrapatu dutenaren begiradarekin. Eta horrelaxe hartu zuten lo, korapilaturik, isiltasunezko giroan eta gorputzei zerien komunikazio nahiaren arteko borrokan sorgindurik. Biharamunera arte. "Chiapaseko beroa"



**5. JELLOUM, Tahar Ben: *Bakarkako isolamendua*, Susa, 1990.**

Ez duk polita, egia duk; urrezko haginak ditik eta titiak ttiki-ttikiak; mendazko tea egin zidak eta eskua hartu zidak. Erdi biluzirik zegoan eta ni jantzirik gelditu nauk. Bereberez bakarrik hitz egiten zian eta kontu kontari egon duk txikitan bezala... Tearen ondoren argia moteldu dik, biluztu duk eta luzaro laztandu naik, sexua inoiz ikutu gabe; ni ondo nengoan, igartzen nian altxatzen zela, pixka bat, ez asko, ez lehen bezala. Atzamarrekin zerbait idazten zian nire bular biluziaren gainean. Argia itzali dik eta bular gainean jarri zidak sexua. Arraroa duk. Irteterakoan, lotarakoan ur beroaz edan beharreko bedar morea eta intzentsu pixkat eman zidak. Bi aste barru itzuli behar diat.

**6. YOURCENAR, Marguerite: *Erremateko tiroa*, Alberdania, 2007.**

Goizaldeko bostak ziren, euria ari zuen, eta Eric von Lhomond, Zaragoza aurrean zauritua, italiar itsasontzi batean artatua, Alemaniara eramango zuen trenaren zain zegoen, Pisako geltokiko buffetean. Gizon ederra zen, berrogei urteetan egon arren, halako gaztetasan gogortuan finkatua; Eric von Lhomondek asaba frantsesei, Baltikoko amari, Prusiako aitari zor zizkien bere perfil estua, begi urdin argiak, garaiera handia, irribarre bakanen harrotasuna eta takoi klaska hura, engoitik oin hautsiak eta bendetan bilduak eragotzia zuena. Heldu zen bi argien arteko ordu hori, jende sentiberak bihotza zabaltzen duen, kriminalek aitortzen duten, isilenek berek ere istorio edo oroitzapenen poderioz logurari aurre egiten dioten ordua. (jatorrizko argitalpenaren lehen lerroetatik hartua)

**7. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier: *Arima enkoniatuak*, Elkar, 2006.**

Ez dakit noiz arte egon ginen horrela, elkarren ondoan hizketan. Halako batean, nekearen nekez, lo geldituko ginen. Ez dakit bera lokartu ote zen lehena ala ni izan nintzen. Berdintsu dio. Hurrena esnatu nintzenez, egunsentia zen: goizeko lehen argi maxkal eta grisa sartzen zen kristalean gaindi. Leihorantz begiratu eta aldameneko ohean ikusi nuen Julian. Esna hura ere, eta niri begira, gorputza jiratuta.

**8. UBALDO RIBEIRO, Joao: *Buda zoriontsuen etxea*, Txalaparta, 2002.**

... Etorri zenean, atea giltzaz eta maratilaz itxi nuen eta nire buruari eutsi behar izan nion haren gainera ez oldartzeko, baina indarrak bildu nituen haren ondoan zutik gelditzeko, eta, hark eternitate baten ondotik, eskua sorbaldan jarri eta galdetu zidan:

\_ Zer moduz?

\_ Ondo, ondo. Urduri.

\_ Urduri?

\_ Zer uste duzu? Dardaraz ditut hankak.

Eta dardaraz zeuden, eta tipoa hantxe, eskua nire sorbaldan eta geldirik, besterik egin gabe. Kostatu zitzaion liluratik ateratzea, baina lortu zuen azkenerako eta, elkar besarkatuak, logelara joan ginen pasilloan barrena. Logela iluna zen, koadroz, eskulturaz eta irudi txikiz josi-josia, eta pareta bat eta sabaiaren parte bat ispiluek betetzen zuten.

**9. KHAYYAM, Omar: *Rubaiyatak*, Erein, 2001. Itzultzailea: Joxemari Iturralde**  
CLXI

Begira lorategian distira egiten duen iturri horri. Neuk bezala, imajina ezazu Kausar iturria ikusten ari zarela eta Paradisuan zaudela. Bila ezazu zure neska-laguna, arrosa bezain freskoa.

**10. MONTOIA, Xabier: *Gasteizko hondartzak*, Susa, 1997.**

*Ikatza bezain beltz*

Badago sekula ahaztuko ez zaigun egun bat; beharbada guztiok dugun akordu komun bakarra: gorputzaren sua beste batengan lehen aldiz amatatu genueneko gomuta gozoa. (1937ko apirilaren 27an jo nuen larrua lehenengoz). Egingo nuke hori ez zaiola inori ahazten, guztioi itsasten zaigula kaskoan, herdoila burdinari legez. Altzairua baino gogorragoa den gomuta deabrua. (Oskarbi zegoen zerua Gernika gainean).

**11. ARISTI, Pako: *Deborah hondartza bakarti batean*, Auskalo, 32; 2002.**

Gazteak definitzen saiatzen diren programak, artikulak edo liburuak patetikoak iruditzen zaizkit. Fidelitatea baloratzen omen dugu, larunbatetan mozkortu egiten ei gara, gurasoekiko lotura afektibo sakonagoa daukagu, sexuaz informazioa badugu, modari jarraitzen diogu, fisikoari garrantzi handia ematen, 17 urterekin edukitzen lehen harreman sexuala... Dena gezurra. Zergatik saiatzen dira sailkatu ezin dena sailkatzen?

**12. RIMBAUD, Arthur: *Izarrak arrosa euria*, *Poèmes/Poemak*, Erein, 1993 in <http://www.armiarma.com/emailuak/erein/rimb223.htm>**

Izarrak arrosa euria isuri du zure belarri ondoan,  
zure lepotik gerrira infinitoaren arroda zuria,  
itsasoak gorritz perlatu du zure ugatz gorrasta,  
eta Gizonak beltz odol-isuri du zure saihets subiranoan.

L'Etoile a pleuré rose  
L'étoile a pleuré rose au coeur de tes oreilles, / L'infini roulé blanc  
de ta nuque à tes reins / La mer a perlé rousse à tes mammes  
vermeilles / Et l'Homme saigné noir à ton flanc souverain.

3.2. ariketa. Markatu hurrengo taulan irakurri dituzun testu-ataletatik zein den literatura erotikoa, zein ez, eta zergatik.

Testu-atalak	BAI	EZ
1. MEABE, Miren Agur: <i>Itsaslabarreko etxea</i> , Aizkorri, 2002. Zergatik?..... ..... ..... ..... .		
2. MINTEGI, Laura: <i>Ecce homo</i> . Txalaparta, 2009. Zergatik?..... ..... ..... ..... .....		
3. GONZALEZ, Sonia: <i>Ugerra eta Kedarra</i> , Txalaparta, 2009. Zergatik?..... ..... ..... ..... .		
4. RODRIGUEZ, Eider: <i>Eta handik gutxira, gaur</i> , Susa, 2004. Zergatik?..... ..... ..... ..... .		
5. JELLOUM, Tahar Ben: <i>Bakarkako isolamendua</i> , Susa, 1990. Zergatik?..... ..... ..... ..... .		
6. YOURCENAR, Marguerite: <i>Erremateko tiroa</i> , Alberdania, 2007. Zergatik?..... ..... ..... ..... .		

<p>7. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier: <i>Arima enkoniatuak</i>, Elkar, 2006. Zergatik?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.</p>		
<p>8. UBALDO RIBEIRO, Joao: <i>Buda zoriontsuen etxea</i>, Txalaparta, 2002. Zergatik?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.</p>		
<p>9. KHAYYAM, Omar: <i>Rubaiyatak</i>, Erein, 2001. Zergatik?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.</p>		
<p>10 MONTOIA, Xabier: <i>Gasteizko hondartzak</i>, Susa, 1997. Zergatik?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>..</p>		
<p>11. ARISTI, Pako: <i>Deborah hondartza bakarti batean</i>, Auskalo, 2002. Zergatik?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>		
<p>12. RIMBAUD, Arthur: <i>Izarrak arrosa euria</i>, <i>Poèmes/Poemak</i>, Erein, 1993 in <a href="http://www.armiarma.com/emailuak/erein/rimb223.htm">http://www.armiarma.com/emailuak/erein/rimb223.htm</a>. Zergatik?.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>		

## 2. LAN-SEKUENTZIA. MARKO HISTORIKOA

## 1. JARDUERA. TEORIAREN IRAKURKETA ETA AZALPENA. LITERATURA UNIBERTSALEAN MURGILDU

### SARRERA

Nahiz eta narrazio erotiko batzuk oso ondo idatzitakoak izan, beti egon dira gaitzetsita eta iluntasunera kondentatuta. Etxeko apal ezkutuetan gordetako liburuak dira, ezkutuan irakurtzekoak.

Literaturak bere obretan, antzinatik, erabili du sexualitatea inspirazio eta argudio-bide. Hala ere, sexua gizarte gehienetan tabua izan denez, literatura erotikoa bazter antzean gelditu da, eta ez du oihartzun handirik izan. Baina horrek ez du bigarren mailako bihurtu.

Historian zehar, agerian ez bada ezkutuan, idazle on askok landu dute, eta obra ederrak sortu dituzte. Garai guztietan egon da egileren bat, debeku eta zigorrei ihes eginez, sexua modu libreagoan bizi izan duena. Horretarako, hainbat baliabide erabili ditu: ezkutuko aipamenak, metaforak eta eufemismoak, aipamen argi-ilunak, ageri-ezkutuko jokoan indar erotikoa duten egiturak...

### HISTORIA (XX. mendera arte)

Literatura erotikoaren eremuan, aro eta kultura ezberdinetako maitasun tratatuak, seduzitzeko mezuak, maitaleen arteko ziten testuak, etab. sartu beharko genituzke. Horren adibide dira:

**Platonen** *Symposium* (*Sinposioa*) liburua elkarrizketa da. Bertan, harreman homosexualek heterosexualekin alderatuta, dituzten abantailak nabarmentzen ditu. **Ovidiok** *Ars Amandi* (*Maitatzeko artea*) liburuan bere burua jakintsutzat hartzen du eta, ironiaren bidez, jarrera didaktikoa erakusten du: gizonen emakumeak konkistatzeko aholkuak ematen dizkie eta emakumeei gizonen maitasuna gordetzekoak.

Indiako kulturaren, K.o. 500. urtean, **Vatsyayana Mallanag**-ek *Kamasutra* (*Sexu-maitasun arauak*) liburuan emakumeekin gozatzeko moduei, afrodisiakoei eta edari bizigarriari buruzko informazioa ematen du.

Literatura erotikoa, liburu klasikoak aipatuko ditugu: **Catulo** (84-54 K.a), bere poema landuetan, maitasunaren psikologian, gorespenean eta sufrimenduan murgildu zen. k.o. 60. Urtean, **Petronioren** *Satyricon* (*Satirikon*) (1970ean **Federico Fellinik** film bihurtu zuen); **Giovanni Boccaccioren** *Decameron* (1353). Bertan, zazpi emakume eta hiru gizon landetxe batean errefuxiatuko dira, 1348ko izurrite ikaragarritik babestu nahian, eta, bitartean, elkarri 100 ipuin kontatzen dizkiote, entretenitzeko asmoz. Kontaketak mota askotakoak dira, baina interesgarrienak garaiko gizartea islatzen duten ipuin komikoak dira. maitasuna modu sentsualean ageri da gordintasunera heldu gabe. *Alf layla wa-layla* (*Mila gau eta bat gehiago*) liburuaren istorioak, antza denez, **Abu abd-Allah Muhammed el-Gahshigar** ipuin kontalariak bildu eta itzuli zituen arabierara IX.mendean. Liburu horren itzulpenak, Europara heldu zenean, izugarritzko oihartzuna eduki zuen orduko gorteetan; handik aurrera, sentsualitateak bustiko ditu argumentuak eta bide desberdinak zabalduko dira: erotismoa, pornografia eta txarkeria.

XVI. mendean, **Pietro Aretino** italiarraren *sonetoak* aipatu behar dira, garai hartako hautsak harrotu zituelako.

XVIII. mendetik aurrera, liburu erotikoak ugaltu eta zabaldu ziren. Ordura arte inoiz ezagutu gabeko neurrian: [Sadeko markesaren](#) (1740-1814) [Les Cent Vingt Journées de Sodome](#) (Sodomako 120 egunak) (1785), [Justine ou les Malheurs de la vertu](#) (Justine edo Bertutearen zorigaitzak) (1791) [La Philosophie dans le boudoir](#) (Filosofia apaingelan) (1795). Sadismoaren aitzindaria izan zen, eta bortizkeria sexu-harremanen barne sartzen du. Sadeko markesak sortutako pertsonaiek zorientasuna lortzen dute sexuaren eta transgrezioaren bidez. [Pierre Choderlos de Laclos](#)-ek (1741-1903) [Les Liaisons dangereuses](#) liburua argitaratu zuen 1782an. Liburuan, Marteuil markesaren eta haren amorantearen, Vermont bizkondearen, gutunen bidezko harremanak kontatzen dizkigu, baita garai hartako aristokraziaren ezkutuko jokoak eta lohikeria ere. Garai hartako beste idazle bat [John Cleland](#) (1709-1789) dugu [Fanny Hill](#) liburua idatzi zuen, eta bertan, pertsonaien arteko harreman sexualez gain, kritika soziala zorrotz egiten du.

Aipatzekoa da Britainia Handian, XIX. mendean, moral victoriarra inoiz baino estuagoa zen sasoiaren, literatura erotiko gordinenak izan zuen loraldia, Frantziar, [Apollinaire](#)k (1889-1918), besteak beste, [Les Onze Mille Verges](#) (Las onze mil vergas), [Les Trois Don Juan](#) (Las hazañas de un joven don Juan), [Poèmes à Lou](#) ([Cartas a Lou](#)) idatzi zituen. Bohemio eta maitale sutsua omen zen, eta erotismoan jakintsua izanik, liburu bilduma bero-beroa idatzi zuen: [L'enfer de La bibliothèque nationale](#) (El infierno de la Biblioteca Nacional).

Ezin dugu ahaztu, 2007an, Frantziako Liburutegi Nazionalak erabaki zuela ordura arte ondo gordeta izan zituen dokumentuak, lan zentsuratuak hain zuzen ere, erakustea "infernua" zeritzan gela batean,

XX. mendean ere segida izan zuen literatura erotikoak, eta hainbat dira aipa daitezkeen idazleak: [Anaïs Nin](#) [Journal](#) (Diarios); [Monique Wittig](#) [Le Corps lesbien](#) (El cuerpo lesbiano); [Henry Miller](#) [Sexus](#) eta [Tropic of Cancer](#) ([Trópico de Cancer](#)); [Pauline Réage](#) [Histoire d'O](#) ([Historia de O](#)); [Emanuelle Arsan](#) [Emanuelle](#); [Vladimir Nabokov](#) [Lolita](#)...

Genero hau oso sortzaile-talde txiki eta itxien kontua izan da duela gutxi arte. Baina 1965a jotzen da aro berriaren abiapuntutzat; izan ere, Suedian, [Berth Milton](#)-ek [Private](#) sortu zuen, eta aldizkari eta film erotikoak ekoizten hasi zen. Urte gutxian, Europan eta Ipar Amerikan sozializatu zen pornografia

## ESPAINIA ETA HEGO AMERIKA

Espanian, nahiz eta eliza katolikoa guztiz aurka egon, eleberri eta poesiagintza erotikoa ugaria izan da, eta, gaur arte, irakurleek harrera ona egin diote. Celestina edo don Juan Tenorio pertsonaiak dira, besteak beste, horren lekuko

Literatura erotikoaren lehen aztarnak [jarchak](#) izeneko bertsoetan, eta, Galiziatik zein Portugaletik zetozen trobadoreek sortutako lirikan aurki ditzakegu. [Hitako artziprestearen](#) [Libro del buen amor](#) (1342) obran, esaterako, [Trotaconventos](#) pertsonaia ageri zaigu lehendabiziko aldiz, [Celestinaren](#) aitzindaria izango dena.

Zenbait urte beranduago, prosan zati erotiko ugari topa genitzake; adibidez, [Francisco Delicadoren](#) [La lozana andaluza](#) obran (1528), [Joanot Martorell](#)en [Tirant lo Blanc](#) zaldun nobelan eta nobela pikareskoan.

Urrezko mendean, XVII. mendean, literatura erotikoa autore askok landu zuten: Esaterako, [Lope de Vega](#)k, [Quevedo](#)k edo [Gongora](#)k, besteak beste. Horrez gain,

merezi du gogoratzea don Juanen Tenorioaren mitoa, [Tirso de Molina](#)ren *El burlador de Sevilla y convidado de piedra* (1627) antzezlanetik sortutako pertsonaia, sasoi horretan sortu zela.

Urte gogorrak ziren haiek, eta, inkisizioaren presiopean, lan asko eta asko ezkutuan pasatzen ziren eskuz esku. Hala ere, badirudi [Nicolás Fernández de Moratín](#) eta [Felix Maria Samaniego](#) ospe handiko idazleek ere jorratu zutela genero hau, lotsarik gabe, XVIII. mendean.

XIX. mendean, izenpetu gabeko lan erotikoak ugaritu egin ziren, baita inolako konplexurik gabe sinatutakoak ere. Horrela jokatu zuten **Rivaseko dukeak**, **Becquerrek** eta **Rosalía de Castrok**, besteak beste. Sasoi hartako beste asko ahaztu gabe, hala nola **Pérez Galdós**, **Pardo Bazán** eta **Leopoldo Alas Clarín**.

Hala ere, *Las ingenuas* (1901) lanarekin [Felipe Trigo](#) izango da gehien nabarmentzen den espainiar idazlea. Horren ostean, baina ildo berari jarraiki, aurkituko ditugu **Pedro Mata**, **Antonio Hoyos y Vinent** eta **Alberto Insúa**, besteak beste. Mende hasieratik aurrera, generoa hedatu eta demokratizatu egingo da, eta, askotan, molde horretako lanak kioskoetan ere aurkituko ditugu salgai. Ondorioz, hainbat idazlek ospe handia lortu zuten: **Carlos de Santanderrek**, **Álvaro Retanak** eta, batez ere **Corín Telladok**.

XX. mendeko literaturan erotismoa normaldu egin zen, baina beste fenomeno bat agertuko da: pornografia. XX. mendeko azken urteetan, hainbat idazlek arrakasta izan zuten nobela erotikoekin, adibidez: **Mario Vargas Llosak** *El elogio de la madrastra*; [Luis Antonio de Villenak](#) *Amores iguales*; **Ana Rossettik** *Alevosías*; **Eduardo Mendicutti** *Los novios búlgaros*; **Almudena Grandesek** *Las edades de Lulú*.

Hego Amerikako zenbait autoreren ([Osvaldo Lamborghini](#) eta [Diamela Eltit](#)) obretan, erotismoa, betiko gaiez gain, arazo sozial eta politikoez ziprztintzen da. Horrela, hizkuntza erotikoa berritu egingo da eta arlo semantikoa aberastu. Literatura erotikoa, hortaz, bizitzaren alde tragikorekin nahastuko da; alde batetik, pobrezia, emakumeen langabezia, borroka politikoa, boterearen biolentzia; eta bestetik, sexua, azpikotasuna eta umiliazioa

## EUSKAL HERRIA

Euskal literaturaren historia-liburuetan nekez aurkituko dugu erotismoari erreferentzia egiten dion pasarterik. Baina, ez al da erotikoa den ezer idatzi euskaraz? Bada, lehendabiziko liburu inprimatutik hasita, erotismoaren presentzia oso nabarmena dugu; horra hor Etxepareren *Emazten fabore*-n agertzen zaizkigun erreferentzia zuzenak. Ederto ikus dezakegu hasiera bikaina izan zuela gure literaturak esparru horretan. Geroago, [Axularrek](#), Agirre Asteasukoak edo Frai Bartolomek, jarrera lizunen aurka egin nahian, esplizitoki deskribatu zituzten hainbat eszena erotiko... Arnaud Oihenartek berak ere aparteko dotoreziaz deskribatu zuen emakumearen gorputza. Eta, ezin ditugu ahaztu gaur eguneko klasiko kontsidera daitekeen [Jon Mirandek](#)ren pasarte eskandalagarri bezain apurtzaileak eta ezagunak.

XX. mendearen azken hamarkadetatik hona euskal idazleak askoz libreago sentitu dira, eta era horretako literatura-ekoizpena asko ugaltu da. Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Europako punta-puntako idazleen itzulpenez gain, (Sade, Apollinaire, Bataille), kutsu erotikoa duten lan ugari argitaratzen hasten da



euskaraz, eta emakume-idazleek pisu nabarmena hartzen dute erotismo eta intimismo esparru horretan.

Aldizkarigintzara ere hedatu zen fenomeno, eta bi aldizkari-erotiko sortu ziren gure unibertsoan: [EHGAMen Xut literatur aldizkaria](#) eta Gasteizen Vicente Gil de Paulesek zuzendu zuen [Zuku Festa](#). Aldizkari horiei esker, idazle askok eta askok beren lanak argitaratzen hasteko plazaleku bikaina dute.

Berebiziko garrantzia dute, baita ere, bi ipuin-lehiaketek: Basauriko [Euskarabila](#) elkartearena eta Iruñeko Sex haizegoa sex-shoparena.

XXI. mendearen hasierari dagokionean, Txalaparta argitaletxearen [Literotura](#) bilduma ezin aipatzeke utzi. Bilduma ausarta da zalantzarik gabe, J. M. Elexpuru editoreak inoiz komentatu duenez " (...) idazle eta editore gehienak ezkor agertzen ziren. Porrot egingo zuela pentsatzen zuten". Hala ere, esan behar dugu azken bost urte hauetan euskaraz idatzitako literatura erotikoren erreferentzia nagusia bihurtu dela.

Argitaletxe horrek 2009ko Durangoko Azokarako *Desira Plazer 68/o8. Euskal poesia erotikoren antologia* ateratzeko asmoa du, Josune Muñoz, Igor Estankona eta Edorta Jimenezen eskutik.

## 2. JARDUERA. ARTEA ETA EROTISMOA

CDan dagoen 6. bideoa "Artea eta erotismoa" ikustea gomendagarria izan daiteke. Izan ere, mundua mundu denetik, arte-adierazpen guztietan erotismoa eta sentsualitatea islatu izan dira eta asko dira gelditu zaizkigun artelanak.c

Nahi izanez gero, horren inguruko bideo bat ikus dezakezue:

<http://www.youtube.com/watch?v=yMgwdVAFS64> Artea eta erotismoa. Eskultura eta pinturan zehar egindako bidaia erotikoa. 4:07 minutu.

### 3. JARDUERA. LITERATURA EROTIKOAREN ADIERAZPENAK

#### 1. ARIKETA:

Ondoko esaldiak binaka komentatu, eta hausnartu; gero, zuen hitzekin azaldu, eta lotu marko historikoaren teoriarekin:

"Genero *erotikoaren* eginkizuna irakurlea asaldatzea, berotzea da, imajinazioa sutan jartzea. Hori lortzeko, literatura ona idatzi behar da (...)"

J. Martin Elexpuru

"Horrelako obra bat idazteko tentazioa askok izan dute, baina lotura ere izan dute ea besteez zer pentsatuko ote duten. Gainera erotikoarena subgenero kutsua dute."

J.M. Elexpuru.

*Sexurik onena, batek irudikatzen duena.* "Hala uste dute batzuek, behintzat. Auskalo egia den. Baliteke, bai. Azken batean, zer da fantasia errealitatearen beste aurpegia baino? Fantasiak bereizten gaitu animaliangandik (adimenak baino gehiago). Fantasiakoa da gure existentzia. Eta fanatariari samurtasuna gehitzen badiogu, hortik aterako zaigun koktela ez da batere txarra izango, sexu-jolasak maite dituztenentzat".

Justo Urdanga. *Egutegi erotikoa.*

"Genero zaila da literatura erotikoa, aurreikusi eta errepikakorra izan daitekeena; eta giroa prestatzeak, gauzak poliki-poliki gorantz eramateak eta ezusteez garrantzi handia dute, bai eta denborari ematen zaion tratamendua. Beraz, idazleentzat ez da genero erraza, zaila izaten baitaie originalak izatea".

Hitzen gozamina. El Pais .AINARA IRAETA 17/03/2003

#### 4. JARDUERA. EUSKAL LITERATURA EROTIKOAREN HASTAPENAK.

1. ARIKETA. Hona hemen euskal klasikoetatik ateratako zenbait pasarte erotiko. Binaka jarrita, komenta itzazue, eta lotu teoriarekin:

Emazteak ez gaitz erran ene amorekatik;  
gizonek utzi balitzate, ez laidite faltarik.  
(...)

Emazterik ez den lekuian ez dakusat plazerik,  
ez gizona ez etxea behin ere xahurik,  
etxean den gauza oro gaizki erreglaturik;  
parabisuan nahi ez nuke emazterik ez balitz.  
(...)

Nik ez dantzut emazteak bortxaturik gizona,  
baina bera zoraturik andreari darraika;  
zenbait andre hel baledi oneriztez hargana,  
zein gizonak andreari emaiten du ogena?  
(...)

Irudi zait, emaztea dela gauza ezitia,  
donario guzietan guziz gauza emia;  
gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia;  
hartzaz gaizki erraitea bilania handia.

Munduian ez da gauzarik hain eder ez plazentik  
nola emaztea gizonaren petik buluzkorrik;  
beso biak zabaldurik dago errendaturik,  
gizon horrek dagiela hartzaz nahi duienik.

Jo badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,  
ainguruiak bano hoboro ez larrake gaizkirik,  
bana dardoa ematurik, zauri' ere sendoturik,  
bere graziaz ezarten tu elgarreki baketurik.

Nor da gizon modorroa hartzaz orit ez dena  
eta gero halakoa gaitzerraiten duiena?  
Ez da gizon naturazko hala egiten duiena.  
Zeren ez du ezagutzen hala ongi egina?

Bernat Etxepare (Moldatua)

**Graziana**

Hanbat nago penatan,  
nik eztakit nolatan,  
gau eta egun gor batek  
naduka arrenkuretan.

Izena du Graziana,  
graziaz bethe izana;  
dohainetan naduke  
harzaz maitatu izana.

(...)

Adatz ikustekoa,  
aztaleranokoa,  
leunez, baitare mehez,  
zetaren gainekoa.

Ederrenen bardina  
(ezpadohat'aitzina)  
da begitartez, eta  
diskret oboro ezina.

(...)

Lepo arrai miratzeko,  
goxo besarkatzeko,  
bular aski ilhunbean  
argi zerbitzatzeko.

(...)

Esku eta zango biak,  
xuri bezain guriak,  
erhi mehe, gaineti  
zilarztatu iduriak

Hanbatez beude erranak  
agerriz dadutzanak,  
eztazkit ezterraket,  
gordailuan daunzanak.

Arnaud Oihenart

a) Harrigarria egiten zaigu XVI.-XVII. mendeetan horrelakorik idaztea?

b) Bila ezazue Etxepare eta Oihenarten lanbideei buruzko informazioa, eta esan, idazle horien lanbideei erreparatuta, norengan egiten zaizuen deigarrien horrelako bertsoak erabiltzea.

### 3. LAN-SEKUENTZIA. POESIA ETA KANTAGINTZA

## 1. JARDUERA. HAINBAT EGILE OSPETSUREN ADIBIDEAK

I.ARIKETA. Hainbat egile ospetsuren olerki erotiko irakurri, eta saiatu gustukoen duzuna euskaratzen.

Poeta hegoamerikar batzuk:

### **Borges:**

¿Es un imperio esa luz / que se apaga / o es una luciérnaga?  
Hoy no me alegran / los almendros del huerto / son tu recuerdo.  
La luna nueva / ella también la mira/ desde otro puerto.

### **Octavio Paz:**

Hecho de aire / .entre pinos y rocas / brota el poema.  
Sobre la arena / escritura de pájaros./ Memoria del viento  
Luna reloj de arena / la noche se vacía / la hora se ilumina.

### **Benedetti:**

Conforme truena / los oídos del bosque / se vuelven hojas.  
Una campana / tan solo una campana / se opone al viento.  
Los pies de lluvia / nos devuelven el frío / de la desdicha.  
No sé tu nombre / sólo sé la mirada / con que lo dices.  
Después de todo / la maniquí no sabe / qué es la libertad.  
Durante el sueño / los amantes son fieles / como animales  
En plena noche / si mis manos te llaman / tus pechos vienen.  
Si me mareo / puede que esté borracho / de tu mirada.  
En este idilio / una boca hay que besa / y otra es besada.  
Si el corazón / se aburre de querer / para qué sirve.  
Cuando seducen / las mujeres se vuelven / una guitarra.  
En los harapos / suele haber más historia / que en la etiqueta

Poeta txinatar bat:

### **Bashoô:**

Este camino / nadie lo reconoce / salvo el crepúsculo.  
La primavera pasa / llorando aves / y son lágrimas los ojos de los peces.  
Luna de agosto / hasta el portón irrumpe / la marejada.  
Me llamarán por el nombre / de caminante / tempranas lluvias de invierno  
¿Por el rostro de las flores / será intimidada / la luna tenue  
El nido de cigüeñas / entre las hojas / del cerezo?  
Sobre la rama seca / se ha posado un cuervo / tarde de otoño.  
La primera nieve / qué felicidad / visita mi ermita.

## II. ARIKETA.JAPONIAKO ARTE EROTIKOA

### Poema laburraren alde

Poesia, askotan, kantu epiko nahiz liriko luzeekin lotu izan da. Prosarekiko dependentziaz edo, poesiak testu luzeetara jo du, obra osatu, luze eta biribilak egitera. Hainbat tradiziok, aldiz, poesiaren xarma txikitasunean ikusten dute. Hor dauzkagu asiar tradizioko poema txikiak: haikuak. Ideia txukun eta zehatz bat aurkezteko ziztada gisakoak, askotan horren misterioitsu eta era berean sakonak.

Haiku erotiko bat:

Otoko bakari no naka ni onna no	Tan sólo hombres y en medio una mujer.
------------------------------------	---

<http://www.elrincondelhaiku.org/int12.php>

<http://euskalpoesiablagabloga.blogspot.com/2007/02/poema-laburraren-alde.html>

Ikusi CDko 11. eta 9. bideoak, eta, binaka jarrita, eztabaidatu erotismoak Japonian izan duen garrantziaz.

11. Bideoa: Japoniako arte erotikoa, XIX. mendeko grabatuetan.

<http://www.youtube.com/watch?v=IHbxIScne-o&feature=related> Japoniako arte erotikoa. XIX.mendeko grabatuak eta pinturak.

9. Bideoa: Manga komiki erotikoak. 2:00

<http://www.youtube.com/watch?v=zzKFhUlxkz4&feature=related>  
Manga Komiki erotikoa, irudiak besterik ez.

## 2. JARDUERA. POEMA BATZUEN BALIABIDEEN AZTERKETA

Olerki erotiko batzuk aukeratu ditugu, eta erabiliak izan diren baliabideez jabetzeko, bakoitzari buruzko zenbait ariketa prestatu ditugu. Aukeratutako lehenengo poemaren egilea Miren Agur Meabe da.

### 1. FITXA: AZALAREN KODEA LIBURUKO ERDU .

#### 1.1. IDAZLEAREN BIOGRAFIA

Irakur ezazu idazleak bere buruari buruz dioena.



## Meabe, Miren Agur

*Jaio:* **1962** (urriak 7)  
Lekeitio – Bizkaia

Lekeition jaio nintzen, itsas bazterrean, 1962an. Nire kolorerik gustukoena lila da. Zenbakia, 7a. Gogokoen dudak paisaia, hondartzak udazkenean. Gehien maite dudak animaliakumea, haurtxo txikiak. Janaririk estimatua, otarrainxkak plantxan. Berba magikoa, Joanes, nire semearen izena. Oroitzapenik ederrena, amaren eskuak. Bilbon bizi naiz.

Txikitan oso gustuko nuen idazlanak eskolan idaztea. Geroago, irakasle bihurtu nintzen eta Euskal Filologia ere ikasi nuen. Bitartean, ipuinak eta olerkiak irakurri eta idazten nituen. Behin batean, beste lan bati ekin nion: eskolarako testuak egiteari, Giltza argitaletxean (edebe taldea). Argitaletxe horretako zuzendaria naiz. Eta irakurtzen eta idazten jarraitzen dut.

Literatur sari batzuk jaso ditut:

- 1997 Imajina ezazu Euskadi, *Ohar orokorrak* (poesia)
- 2001 Kritika Saria, [Azalaren kodea](#) (poesia)
- 2002 Euskadi Saria, [Itsaslabarreko etxea](#) (gazte-literatura)
- 2006. Euskadi Saria, [Urtebete itsasargian](#) (gazte-literatura)
- 2010 Euskadi Saria, [Errepidean](#) (gazte-literatura)

<http://www.susa-literatura.com/kritikak/idatzmintz/kritoo48.htm>



## 1.2. POEMA-IRAKURKETA

Hurrengo poema hau irakurriko dugu. Lehenengo, ondo ulertzeko, bakarka; eta gero, behin ulertuta, ozen:

### ERDU

Erdu.  
Gerturatuko bazina  
jostati, kilimusika dabilkizun nire giharren uztarrira,  
baietz arin hezi zure larruaren uhalak  
hain luze atzenduriko nire pasio-urruma ubela.  
Eta hurbilduz gero  
itsaso xahutuzko begiotara,  
baietz zure adikuneak askatu desioaren gudaontziak,  
bat-batean gizon dutako haurrak bailiran.  
Edo hurreratu nahiko bazenu  
masusta-aho honetara,  
baietz zure musuek garbitu ezpainotako kittoak,  
eta nik berehala ahaztu: zorkoa, hartua.  
Hona azalean borborka itxaron izana.  
Loraila loretan bezain merke opatzen natzaizu.  
Erdu, eta egin beharrekoa, laster egizu.

Miren Agur Meabe, 2000



## 1.3. LEXIKOA

Azpimarra itzazu gorritz sentipenekin zerikusia duten hitzak eta berdez gorputzarekin dutenak.

Hitzok zutabe banatan jarri: sentipenei dagozkienak baten, eta alde fisikoa islatzen dutenak, bestean.


Hitz bakoitzari ondo erreparatu, eta alboan adierazi haietako bakoitzak sortzen dizun sentipena. Adibidez, **iharra: biluztasuna**.  
Horretarako, hitz hauek lagungarriak izango zaizkizu: eztitasuna, gordinkeria, artegatasuna, lasaitasuna; mina, poza, argia, iluna, zuzeneko adierazpenak, ironia...

#### 1.4. GAIA

Poesiaren protagonista lehenengo pertsonan mintzo den emakumezkoa da. Protagonista hori hizkuntzaren morrontzatik askatu nahian dabil. Morrontza horrek besteekin izandako harremanak zeharo baldintzatzen ditu, komunikazioaren ezintasunera eramaten baikaitu. Beste komunikazio- sistema baten beharra ikusten du: azalaren aldeko aukera egingo du.

Zein da olerkiaren gaia? (gehienez, bost edo sei hitz erabili)

.....

#### 1.5 ZURE GUSTUKO POEMA

*Azalaren kodea* liburua hartu, edo beheko estekan begiratu, eta bilatu gustuko duzun poema bat.

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=poes27>

#### BALIABIDE LITERARIOAK

##### ANAFORA

Errepikapen prozeduran oinarritzen den hitzezko figura da: testu zati batean, elkarren segidako enuntziatuen hasieran hitz bat edo gehiago errepikatzean datza. Hitz edota hitz multzo bera errepikatzen da perpaus baten hasieran, nahiz bertso lerro edo neurtitz baten hasieran. Aukerak anitz dira: zenbait sintagma perpausen hasieretan errepikatzea, nahiz zenbait neurtitz edo bertso lerroren hasieran, nahiz periodo batean, nahiz estrofa batean. Helburua hitzaren esanahia sendotzea eta enfasia ematea izaten da.

*Literatura Terminoen Hiztegia*  
Euskaltzaindia

Uxue Alberdiren *Esan didate* poeman, oso argi ikus dezakegu anforaren erabilera. Zertarako erabili du egileak baliabide literario hori? Zer adierazteko?

##### **Esan didate**

Esan didate burtsak pixka bat gora egin duela.

Esan didate auto istripuz hiru gazte hil direla bart.

Esan didate itsasgora gauerdian tokatzen dela eta ilargia ez dela gaur ere osoa izango.

Esan didate langabezia ez dela iaz bestekoa.

Esan didate Aste Santuko prozesioko Ama Birjinari begi bat falta zitzaioela.

Esan didate gaur ere euria egingo duela eta itsasoan, itsaskirria.

Esan didate torturarekin kanpaina egiten dela.

Esan didate hegazkina atzerapenez hegaldatuko dela.

Esan didate honek hura esan duela  
eta hark, hark ez duela belarririk ezer esateko.  
Esan didate beste mila haur gosez hil direla.  
Esan didate salmonellarekin gizon bat larri dagoela.  
Esan didate mundu erdia estresatuta bizi dela  
eta beste erdiak ez duela erlojurik heriotzarako falta zaizkion segundoak neurtzeko.  
Esan didate agure bat penaz hil dela.  
Esan didate homosexual bati bizitza ez zaiola gaur hain zaila egin.  
Esan didate eskale batek hotza pasa duela gauean  
eta berogailua piztuta uztearren bikote bat kiskali dela bi farola urdin dituen kale  
batean.  
Esan didate aste honetan munduak nazka ematen duela.

Eta esaten dizut. Hemen nago parke huts bateko putzuan zure irribarreari forma eman  
nahian.

Miren Agur Meaberen *Erdu* poeman, anaforarik aurkitu duzu? Zein?

#### EGITURA PARALELOAK

Paralelismoa da lerro edo perpaus batzuetan egitura sintaktiko bera errepikatzea.

Edorta Jimenezen (Omar Nabarro) poema honetan, argi ikusiko duzu baliabide  
literario honen erabilera, nahiz eta batzuetan anaforarekin nahas daitekeen.

#### DENA DA HARAGIA

Haragia dira ileak,  
haragi atzazalak;  
haragia oinak,  
    haragi zapatak.  
Haragia dira ezpainak,  
haragi hezurak;  
haragia begiak,  
    haragi tatuaiak.  
Haragia dira hatzak,  
haragi arnasa;  
haragia musua,  
    haragi maskarak.  
Haragia dira zainak  
haragi hortz-haginak;  
haragia odola,  
    haragi uhalak.

Haragia dira larruak,  
haragi ipurdia;  
haragia listua,  
    haragi eraztunak.  
Haragia dira titiak,  
haragi laztanak;  
haragia zartadak,  
    haragi latexa.  
Haragia dira malkoak,  
haragi izerdia;  
haragi oiaieneak,  
    haragi isuria.  
Dena da haragia,  
    baita  
haragia bera ere.

© Omar Nabarro

[www.susa-literatura.com](http://www.susa-literatura.com)

Poema hori egitura sintaktiko berbera erabiliz osatua dago. Zein uste duzu izan  
dela olerkariaren asmoa? Zertarako erabili du egitura errepikatu bat?

### 3. JARDUERA. POEMAK SORTU

#### Poema laburrak

Oraingoan, poema erotiko bat sortzen ahaleginduko zara. Baina lana errazte aldera, olerkari gazte bik: Uxue Alberdik eta Castillo Suarezek sortutako poema laburrak ikusiko dituzu.

**B**izkarra eman nahi dizut  
atzetik besarkatuta  
nire bularrak fereka ditzazun

Uxue Alberdi

#### ORAINA

Nire oraina zure iragana da;  
nire etorkizuna beste baten oraina.  
Larrutan lehenbizikoz egiten duen neskak  
naiz orain,  
baina matematika irakasle baten emaztea  
izan nahiko nuke,  
eta orain arteko kontratu guztiak hautsi.

Castillo Suarez *Spam poemak*, 2004

#### ERABAKIA

Har dezagun erabakia  
esandako hitz erdi batekin.  
Har dezagun erabakia  
esan gabeko beste erdiarekin.

Castillo Suarez *Spam poemak*, 2004

#### KENDU

Edertasuna ez da hutsala:  
lehen zoritxarrekoak ginen;  
orain, berriz, ederrak.


Castillo Suarez *Bala hutsak*, 2006

Poemok irakurrita, konturatuko zinen olerkiak laburrak izan arren, modu adierazkorrean egitea ez dela erraza. Are gehiago, laburrean indarra jartzea ez dela beti lortzen. Baina, zailtasunak zailtasun, zuri dagokizu orain poema erotikoren bat, laburra zein luzea, asmatzea.

Gogoratu horretarako baliabide literarioak (anaforak, egitura paraleloak, konparazioak...) erabiltzea lagungarri gerta dakizukeela.

## KALIGRAMAK.

Goizalde Landabasoren *Jat* liburuko poema bat jarriko dugu hemen, kaligrama erara idatzia. Beharbada, aurretik ez duzu inoiz entzun hitz hori eta ez dakizu zehatz-mehatz zer esan nahi duen, baina poema hau ikusita, ideia argi bat egin dezakezula pentsatzekoa da.



Hemen duzu beste adibide bat Joxean Artze poetarena, *Isturitzetik Tolosan barru* liburutik hartua.



KALIGRAMA: definizioa

“Calligraphie” eta “gramme” hitzak batuz (“kallos”=ederra+“gramma”=letra) Guillaume Apollinairek 1918an agertu zuen poema liburuari eman izena da: *Calligrammes*; horko zenbait poematan letra eta hitzen elkartze bereziei esker, gaia *marrazten* edo irudikatzen baita, eta irakurketaren linealtasuna hautsi.

Apollinairek “ideograma lirikoak” ere deitu zituen poemok arras ezagunak ziren antzinate greko eta latindarrean, baina XVI. eta XVIII. mendeetan berpiztu eta berri ro zabaldu ziren, eta joko intelektual huts bilakatu. Ohartzekoa da Apollinaireren helburu poetikoa arras perspektiba ezberdin eta berrietan kokatzen dela: neurtitz askatu/irudi, ideia/forma elkartzeko asmoz. Oro har, frantses poesia, gero surrealismoan hedatuko den, “mugagabetasun eta etorkizunaren azken mugetara” (Apollinaire) helaraziz.

Kaligramak esperimentazioaldi batean berritu ziren, arte plastikoen eta poesiaren elkartzearen bidez, diziplina arteko genero konplexuetarantz bideak zabalduz. Poesia bisual modernoaren adierazpentzat har daiteke, gisa berean, abango ardiek orri idatziaren linealtasunari balio estetiko bisuala eratzeki baitzioten, eta poemaren ohiko funtzio poetikoari hizkiez osaturiko irudiaren forma grafikoaren adierazkortasuna erantsi. Euskal poesian J.A. Artzeren hastapeneko zenbait poematan suma daitezke, beharbada, oihartzun batzuk. Hona hemen kaligrama adibide bikaina, B. Gandiagaren *Uda batez Madrilen* liburukoa, iturri baten zibot edo ziba forma irudikatuz egina:

“Natur Zientzien Museoko harrimailatan eseri zen,  
Gurutzeko Jonen Plazako iturriantz.  
Lan eta ahalegin oro utzirik,  
egona aukeratu zuen eta  
egonetik begiratzea.  
Iturriak etorri  
eta joan betikoz,  
betiko  
ziba  
beti  
lokartu  
jira  
birariz  
zirautson”.

[A.A.]

*Literatura Terminoen Hiztegia*  
Euskaltzaindia

#### 4. JARDUERA. AHOZKO LITERATURA EROTIKOA

Literatura klasiko idatzian ez dugu liburu erotikoen ondare handirik, erlijio gizonek idazten baitzituzten literatura-liburu gehienak. Herri literaturan nahiz ahozko tradizioan, aldiz, adibideak ugariagoak dira; herriak beste umore batez bizi baitzuen sexua eta lizunkeria. Adibidez:

Kopla zaharretan sarritan ikusten da mezu ezkutua.

“Arrabako landea  
balego Gorbeien  
hantxe egingo geunke  
zirikin zakien.  
Ai oi ai, zirikin zakien.”

Eta, gaur egun ere, bertsolaritzan erotismoa ez da bazterten.

Bertsolariak: Lujanbio Maialen / Sarasua Jon

Herria: Murueta Eguna: 1997-01-24

Gaia: Aspalditik bikotea zarete eta orain arte zuen arteko harremanean hitza besterik ez da izan, baina gaur hitzetik aurrera jarraitzeko bidean zaudete.

Doinua: Orbelak airez aire / Begiratu

Neurria: Lauko Txikia Lana: Binaka gaia-emanda

Jardun-mota: Lagunartea Gai-jartzaileak: Lejardi Jose Mari = Gabixola

Gai-jartzaileak: Lejardi Jose Mari = Gabixola Argitaratua: BAPATEAN 97, 61 OR.

TRANSKRIPZIOA:

**J.Sarasua:**

Ai nere Maialentxu,  
dontzeila dultzia! (bis)  
Nahi al duzu nerekin  
zerbait probatzia? (bis)

**Lujanbio:**

Elkarrekin gaudela  
joan da denbora, (bis)  
ni ere pasatu naiz  
epeletik gora. (bis)

**J.Sarasua:**

Nik ere hotza epel  
bihurtzea gura; (bis)  
konplikatuko al dugu  
gure abentura? (bis)

**Lujanbio:**

Sarri jarduten dugu  
hizketa ezitan; (bis)

probatuko al dugu

mandire azpitan? (bis)

**J.Sarasua:**

Lehen ere deitu dizut  
dontzeila dultzia, (bis)  
ta orain nahi al duzu  
desdontzeilatzia? (bis)

**Lujanbio:**

Beraz joan gaitezen  
mandira artea, (bis)  
desprintzipa dezadan  
nere printzipa. (bis)

**J.Sarasua:**

Desprintzipatuko naiz  
nere poxpolina! (bis)  
Ireki ezaidazu  
zure krabelina. (bis)

**Lujanbio:**

Nik ez dizut itxiko  
ez krabelinikan, (bis)  
baina ez da irtengo  
odol urdinikan. (bis)

**J.Sarasua:**

Odol urdina nahiz ta  
krabelinak bota, (bis)  
zerbait irtetzen bada  
neri ez zait inporta. (bis)

**Lujanbio:**

Gurea da gorputza,  
gurea da gaba! (bis)

Goitik edo behetikan,  
non hasiko gara? (bis)

**J.Sarasua:**

Oker genbiltzan eta  
ez gabiltza zuzen, (bis)  
ekintzara pasa ta  
isildu gaitezen. (bis)

**Lujanbio:**

Hizketa jardunean  
nahiz luzaro kostatzen, (bis)  
gustora egingo dizut  
belarrian koxka. (bis)

Bertso horiek kantatzeko *orbelak airez aire* baladaren doinu berbera erabili ahal duzu. *Hiru truku* taldeak abesten du.

<http://www.trikimailua.com/hitzak/o68-hiru-hiru-13.htm>

## 1.- ARIKETA:

Koplak kantatu ostean, saiatu, binaka jarrita eta modu guztiz librean, gatz eta piperra izango dituzten beste kopla batzuk sortzen. Ariketa binaka egingo duzue, elkarrizketa bat sortzea errazagoa izan daiteke.

**5. JARDUERA. EUSKAL ABESTI EROTIKO GUSTUKOENA AUKERATZEN**

Abesti bi entzungo ditugu: GATIBUren *Eztanda egin arte* eta MIKEL ELIZAGAREN *Amodioffiraq*. Abestiak klasean landu eta gero, etxerako lana norberak gustuko duen euskal abesti erotiko bat aurkitzea eta lantzea izango da.

## 1. Abestia

GATIBUren *Eztanda egin arte* abestia entzungo dugu eta horren lanketari ekingo diogu.

<http://www.youtube.com/watch?v=ZOB9-LGRK1A&feature=related>



Eztanda egin arte Gatibu (Laino guztien gainetik)

Jolastu egin nahi dot  
burue galdu arte  
ta zure bulerrak ikutu.

Nahi dogune egin geinke,  
hankaz gora jarri mundue,  
erakutsi dakizun guztixe.

Dekozun azal gozoan  
irristaka bajatzen joan,  
G hori nun duzun aurkitu.

Ta sentitu  
aiene artien zelan mugitzen zaren zu,  
eta gero  
zure arnas estuen erritmoa segitu  
eztanda egin arte.

Ta sentitu  
aiene artien zelan mugitzen zaren zu,  
eta gero  
zure arnas estuen erritmoa segitu  
eztanda egin arte.

Geur izerrak ikusi nahi dodaz,  
barru-barrutik hustu.  
Unibertsoan hegaz egin.

Jolastu egin nahi dot,  
aprobetxeu momentue,  
bizi, topera bizi.

Ta sentitu  
aiene artien zelan mugitzen zaren zu,  
eta gero  
zure arnas estuen erritmoa segitu

Zure uliek korapilotu,  
emon-emon egin eta gero,  
zoroak garela onartu.

Ta sentitu  
aiene artien zelan mugitzen garen gu  
eta gero  
gure arnas estuen erritmoa segitu

Nor da abeslaria? Zer dakizu Gatibu taldeari buruz?

.....  
.....

Gehiago jakin nahi baduzu: **GATIBU wikipedia**<http://es.wikipedia.org/wiki/Gatibu>

Bilatu berba hauen sinonimoak edo baliokideak.

<b>Jolastu</b>	
<b>Arnas</b>	
<b>Aiene</b>	
<b>Korapilatu</b>	
<b>Hegaz egin</b>	
<b>Barru</b>	
<b>Sentitu</b>	

Zein da abestian errepikatzen den leloa?

.....  
.....

Nola moldatzen dute lelo hori bukaera aldera? Ba al dago progresiorik?

.....  
.....

Zein euskalkitakoak dira aditzak eta bestelako berbak?

.....

Idatzi batuan aditz hauek:

Dot	
Dekozun	
Aprobetxeu	
Emon	
Geinke	
Dodaz	
Dogune	

Idatzi batuan bestelako berba hauek:

Burue	
Bulerrak	
Non	
Artien	
Momentue	
Uliek	
Mundue	
Guztixe	
Geur	
Izerrak	

## 2. Abestia

AL-KALI, Mohammed: *Amodioffiraq* in "Hau da ene ondasun guzia", Txalaparta, Tafalla, 1999 (euskaratzailea, Joseba Sarrionandia). Abeslaria: Mikel Elizaga.


Mikel Elizagaren *Amodioffiraq* abestia entzungo dugu eta lanketari ekingo diogu.

Ez dizut esango goiz usaineko  
ahotsa duzula,  
ez desertuko erreka naroa  
zarenik,  
ez dizut esango gazela begiak  
dituzula,  
ez zure ilea arratsaldeko haizea baino  
leunagoa denik.

Ez dizut esango zure gorputzak  
eguzki aldeko  
mendi magalen sosegua duela.  
Ez baita egia,  
zure gorputza nahiko normala da  
baina  
zurekin ez nagoenean maleriaz  
gaixotzen naiz.

Gustatzen zaizu abestia? Zer azpimarratuko zenuke olerki horretan? Nabaritzen da idazlea beste kultura batekoa dela?

.....  
.....



Ez dizut esango goiz usaineko abotsa duzula,  
Ez desertuko erreka naroa zarenik,  
Ez dizut esango gazela begiak dituzula,  
Ez zure ilea arratsaldeko haizea baino  
lehunagoa denik. Ez dizut esango zure gorputzak  
Eguzki aldeko mendi magalen sosegua duela.  
Ez bait da'egia, zure gorputza nahiko normala da,  
Baina zurekin ez nagoenean maleriaz gaisotzen naiz.

Mohammed Al-Kali

Zer iruditzen zaizu abestiarekin batera dagoen marrazkia?

.....  
.....  
.....

Etxean aukeratu dugun abestiaren hitzak, eta talde edo abeslariaren xehetasunak. You Tuben edo Googlen agertzen badira, helbideak ekarri. Horiekin batera, ekarri abestiarekin zerikusia duen marrazki bat.

1. Proposatutako abestia: \_\_\_\_\_

Zergatik?

.....  
.....

Proposatutako abestia defendatzeko baliabideak:

Nik uste dut...ela.  
Nire ustez...  
Niri iruditzen zait...  
...-lako  
...-nez gero  
...-la eta

Abestiaren inguruko xehetasunak:

. Taldearen edo abeslariaren inguruan:

.....  
.....  
.....  
.....

. Abestiaren letraren inguruan:

.....  
.....  
.....  
.....

. Marrazkiari buruz:

.....  
.....  
.....  
.....

Behin klasean, taldeka, eztabaidatu eta erabaki zein den euskal abestien erotikoen artean gustukoena; horretarako, taldekide bakoitzak bere proposamena botako du; aldeko argudio egokiak erabiliko ditu, eta gero denen artean bat aukeratuko duzue.

Negoiaziorako taula honi erreparatzea interesgarria izango da, argi edukitzeko zer egingo dugun, zertarako eta, eztabaidaren bitartez, zer ikasiko dugun.

ZER EGINGO DUGU?	ZERTARAKO?	ZER IKASIKO DUGU?
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eztabaida bat egingo dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldeka zenbait ideia eztabaidatuz, ados jartzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argudiatzeko estrategiak hobetzen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eztabaida aztertuko dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gure iritzia ematen jakiteko.</li> <li></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Nola eztabaidatu. Ustea adierazteko esamoldeak egiten.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldekideen iritzia kontuan izango ditugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hitz eginez elkar ulertzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lankidetzaren harremanak hobetzen. Taldean eztabaidatzen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Jendurrean nola hitz egin aztertuko dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eztabaidetan nola jokatu jakiteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jendurrean hitz egiten.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizkaierazko aditzen eta berben zerrenda egingo dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara batuko hitzekin konparatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara estandarra eta euskalkia desberdintzen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal abesti erotikoak konparatuko ditugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal abesti erotiko gustukoena aukeratzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Konparazio-egiturak ondo antolatzen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal abesti erotiko baten letra eta bideoa aurkituko ditugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>IKTak erabiltzen ikasteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Behar ditugun datuak sarean aurkitzen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Aukeratu dugun abestia irudi egokiarekin lagunduta aurkeztuko dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Abestia girotzeko eta mamia ulertarazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Abestiaren mezua islatzen.</li> </ul>

Idatzi zer esapide erabiltzen dituzten ikaskideek honako hauek adierazteko:

Iritzia	Desadostasuna	Zalantza

## 6. JARDUERA. AHOZKO JARDUNAREN EBALUAZIOA

IZENA.....					
JARDUNA EBALUATZEKO KONTROL ZERRENDAA		BAI	HALA HOLA	EZ	
ZER ESAN DUGU		Konbentzitzeko asmoa argi geratu da?			
		Iritzi trukea egon da?			
		Bakoitzaren iritzia argia izan da?			
		Argudio baliagarriak erabili ditu?			
		Ustea adierazteko esamoldeak erabili ditu?			
		Kontra egiteko esamoldeak erabili ditu?			
		Gaiari eutsi dio?			
NOLA ESAN DUGU	JARRERA	Txanda errespetatu du?			
		Aurkaria errespetatu du?			
		Entzuteko jarrera izan du?			
	GORPUTZA	Gorputz-jarrera egokia izan da? naturala izan da?			
		Lasai egon da?			
		Aurpegira begiratu du?			
	AHOTSA	Hitz egiterakoan, ondo ulertu zaio?			
		Irakurri egin du?			
		Ondo ahoskatu du?			
		Hitz makuluak erabili ditu?			

## IRAKASLEAREN ORRIA

Bilatu berba hauen sinonimoak edo baliokideak

Jolastu	<i>atsegin hartu, jostatu, olgatu.</i>
Arnas	<i>Hats, hasperen.</i>
Aiene	<i>Zinkurin, intziri, auhen, espa, zizpuru.</i>
Korapilatu	<i>Nahasi, nahaspilatu, mordoilotu, kateatu.</i>
Hegaz egin	<i>Hegan egin, hegaldatu, hegatu.</i>
Barru	<i>Barne, barren.</i>
Sentitu	<i>Sumatu, nabaritu, hauteman.</i>

Zein da abestian errepikatzen den leloa?

*Ta sentitu*

*aiene artien zelan mugitzen garen zu*

*eta gero*

*zure arnas estuen erritmoa segitu*

Eta bukaera aldera nola moldatzen du lelo hori? Progresiorik ba al dago?

*Ta sentitu*

*aiene artien zelan mugitzen garen **gu***

*eta gero*

***gure** arnas estuen erritmoa segitu*



## 4. LAN-SEKUENTZIA. NARRAZIO EROTIKOA

## 1. JARDUERA. NARRAZIO EROTIKOEN ADIBIDEAK

Euskal Herrian ez da oso ohikoa maitasunean, erotismoan eta pornografian oinarritutako lanak topatzea. Guk horietariko batzuk aukeratu eta zenbait ariketa prestatu ditugu.

Batzuei gustatuko zaizkie, eta beste batzuei, akaso, gordinak irudituko zaizkie. Edozein modutan ere, irakurri eta gozatu!

### ALARGUNTSA GAZTEAREN HAUTAGAIK

#### Patxi Zubizarreta

Orduan neska gizonari hurbildu eta berarengana ekarri zuen; gizonak, Badr al-Din-ek, neska besarkatu eta, haren hanka artean sarturik, kanoia kargatu eta harresietarantz zuzendu zuen; eta tiro egin zuelarik, gaztelua goitik behera porrokatu zen. Une hartantxe jabetu zen neska hura perla bat zela, artean zulatu gabea, artean inork estalia ez zuen behorra. Eta birjintasuna deuseztatu ziolarik, haren gaztetasunean hartu zuen atsegina. Eta hamabost bider jarraitu zuen, kanoia karga eta tiro egin, harik eta neska haurdun geratu zen arte. Hala gauzak, behin amaitu zutelarik, Badr al-Dinek ezker eskua burupean ezarri zuen eta neskak ere horixe bera egin zuen. Gero, elkar besarkaturik, loak hartu zituen.

Xerazade, **Mila gau eta bat gehiago**

Urruneko erresuma batean, diru kopuru ederra zela medio, kalifa aguretu batek neskatila inuzente eta xalo batekin esposatzea lortu zuen. Urte gutxiren buruan, kalifa hil eta neskatila, ordurako emakume lirain, erresuma hartako buruzagi bilakatu zen.

Aberatsa eta xarmanta izaki, luze gabe printze, kalifa eta jauntxo asko joan zitzaizkion ezkontza eskabidea egitera. Baina emakumeak ez zuen aginte edo diru gehiago nahi, agurea ez bezalako gazte maitekor eta jostari bat baizik.

Hala gauzak, denen harridurarako deialdi zabala egin zuen halako egunetan, halako ordutan, berarekin esposatu nahi zuten guztiak -izan pobre, izan aberats- jauregira agertzeko.

—Ea, mintza zaitetze —esan zien banaka-banaka deialdiaren egunean—. Hitz egidazue zuen bizimoldeaz, zuen gustuez, zuen lanbidez.

Hautagaiak mila eta bat gehiago izan ziren eta denek, luze ala labur, dotore ala baldar, emakumeak agindutakoa bete zuten. Baina hark bost gazte bakarrik hautatu: suge enkantatzaile bat, dantzari bat, printze bat, artzain bat eta arotz bat. Eta haiei banan-banan bere geletara deitu zien.

Buruz buru geratzean, eskakizun bera egin zien bost hautagaiei, eta denak ala denak ere lotsatu eta kikildu ziren hitz hauek entzun zituztenean:

—Nire aurrean, ni lekuko nauzula, eta zuek gogokoen duzuen moldean, gizonak bakarrik atsegin hartzen duzuen moduan aritzea nahi dut—eta neskak hautagaiak xaramelaturik zituenenez, hark zer agindu, horixe beteko zutela hitz eman zuten.

Eta aurrena suge enkantatzailea hasi zen. Hura leuntasunik finenaz biluztu eta, txirulaz doinu ezin lizunago bat jo bitartean, bere gerripeko sugea sigi-saga altzarazi zuen. Eta eskuez ukitzen ez zuela, puska batean dantzarazi zuen piztia, harik eta, berez-berez, mizto zuria isuriz otzandu zen arte.

Hurrena dantzariak ekin zion. Deabruak hartua bezala, lurtean pipitika ibili zen, eta jauzika, eta txiri-bueltaka, eta bien bitartean erantziz joan zen. Noizbait ere larru bizirik geratu zelarik,

bere tresna izter artean laztandu zuen, ahora ere eraman zuen —mundua mundu denetik gizaseme gehienei ukatu izan zaien plazerik handienetakoa—, eta azkenik ahozpeztan eta arnasestuka amaitu zuen emakumearen oinetan, haziaren hondarra ahotik zeriola.

Hurrenago printzea saiatu zen. Jauregiko harem-ean nahi hainbat emakume izatera ohitua, hura kosta ahala kosta ahalegindu zen bere aginte makila altxatzen, baina bakarrean ezin.

Azkenurrena artzaina izan zen. Honek enbor tantai bat atera zuen bere txilabapetik, emakumeak inondik ere izutzeko modukoa, eta ahuntzen errapeetatik bezala, bi eskuez tiraka jardun zuen, esne guztia uholdeka jeztea lortu zuen arte.

Eta azkena arotza heldu zen. Gazteak emakumea lorategietara eraman zuen, azala leuna zuen sahats bateraino. Orduan labana atera eta hiru sakonune egin zituen enborrean, bi bularren aldean eta bestea besabete bat beheiago. Goikoetan pikondo batetik hartutako bi ale ezarri zituen, eta behekoan txortena kendua eta erditik zulo zabal samarra zuen sagar bat. Eta zuhaitza laztandu bitartean, pikuak eta sagarra milikatzen eta jaten hasi zen, astiro, presarik gabe, Adanek fruitu debekatua dastatu zuen lehen aldia bailitzan. Eta denbora guztian begiak itxirik izan bazituen ere, sagarrean plazerez urtu behar zuen unean, bera izan zen emakumeari begietara tinko so egin zion hautagai bakarra.

Desiozko begirakune hura jaso ostean, emakumeak ez zuen zalantzarik egin eta arotzari eskaini zizkion bere muinoak eta oihana, bere pikuak eta sagarra. Huraxe zen berak amestu izan zuen gazte maitekor eta jostaria, huraxe bere senarra.

**PATXI ZUBIZARRETA** Ordizian (Gipuzkoa) jaio zen 1964an eta Gasteizen bizi da joan den hamar urtean. Euskal Filologia ikasi zuen Donostian eta Gasteizen. Hasiera batean irakaskuntzara zeharka lotua lan egin bazuen ere, luze gabe jo zuen gehien gustatzen zitzaion alorrera: hedabide idatzietan parte hartzerantz (*Euskaldunon Egunkaria, Habe, Egin, Argia...*), itzulpenak egitera (*Ali Baba, Aladin, Sinbad...*), eta, batez ere, literaturlanak sortzerantz. Haur eta gazte literaturan jardun izan du batik bat, eta hauexek dira nabarmendu izan dizkieten obrak: *Matias Ploffen erabakiak* (Erein: Lizardi saria 1991), *1948ko uda* (SM: Bapore Saria, 1993), *Eztia eta ozpina* (Alberdania: A. M. Labaien Saria, 1995) eta *Gizon izandako mutila* (Pamiela: Euskadi Saria, 1998). Hala ere, orriotara ekarri dugun ipuina ez da helduentzako idatzi duen lehen lana, eta ez ahal da azkena izango!

## 1.ARIKETA. TESTUA AZTERTU

1. Edozein ipuin tradizionalen aldean, zeintzuk dira ipuin horretako berezitasunak?
2. Emakumeak jarritako proba egiten ari direnean, hautagaien nortasun berezia erakusten dute. Zein izenondo jarriko zenioke bakoitzari?
  - suge enkantatzailea
  - dantzaria
  - printzea
  - artzaina
  - arotza

## ETA BEGIAK ITXI ZITUEN

Xabier Etxaniz Rojo

Gaupasa egin ondoren, goizeko tren hartu eta etxera joatea oso gauza arrunta da. Hamaika aldiz egindako bidaiak. Batzuek kotxerik ez dutelako. Beste batzuek, alkohol gehiegi edango dutelakoan, kotxea etxean utzi dutelako. Nolanahi ere, goizeko tren horietan jende ezberdin asko elkartzen da, nahiz eta beraien artean hitz bakar bat ere ez esan. Gehienetan erdi hutsik doazen bagoi horietan, mozkortia eta langilea, parrandazalea eta mendizalea, elkarren aurrean esertzen dira. Ohetik altxatu berria lanera doana eta, *lana* egin ondoren, ohera doana. Berehala ahaztuko zaizkizun aurpegi arruntak... edota hain erraz ahaztuko ez zaizuna, baldin eta niri gertatu zitzaidana gertatzen bazaizu.

Bera Tolosako apeaderoan sartu zen. Goizeko 6ak ingurua izango zen. Iruna ailegatzeko ordu eta laurden falta zitzaidan, eta nire begiek, aspaldiko partez, ohea besterik ez zutela ikusi nahi esaten zidaten. Hala ere, bera bagoian sartu zenean, berehala *esnatu* nintzen, nire aurreko eserlekuan eseri baitzen.

Bagoia erdi hutsik zegoen.

Eseri zenean, "kaixo" lotsati bat baino ez zuen esan eta nik "epa" erantzun nion.

Oso polita zen.

Bere janzeragatik lanetik ez zetorrela erraz asko ikusten bazen ere, ez zeukan gaupasazale guztioi geratzen zaigun *ohe-bat-behar-dut-erdi-mozkortuta-nago-ta* aurpegi hori. "Nondik etorriko ote da?" pentsatu nuen.

Bagoiaren beste puntan bidaia osoa musuka eman zuen bikotea, Anoetako geltokian jaitsi zen, gu biok bakarrik utziz.

Ni baino 10 urte helduagoa izango zen, 30 urte ingurukoa.

Begiratzen hasi nintzaion. Hala ere, begira nengoela konturatu bezain laster, beste aldera begiratu nuen erabat lotsatuta. Berehala ohartu nintzen kanpoko iluntasunak leihatila ispilu bihurtzen zuela; beraz, zuzeneko begiradak eta *ispiluak* eskaintzen zidan aukera tartekatzen hasi nintzen nire azterketa egiteko.

Eta ikusten nuena oso gustukoa nuen.

Soineko beltz bat zeraman leporaino, mahukarik gabekoa. Atzetik lotzen diren horietarikoak. Ez zeukan eskoterik. Ilea, *Pulp fiction* pelikulan ateratzen den neskarena bezalakoa, hots, zoragarria. Ezpainek, gorri leun batez margotuak, edonor zorionaren mundura eramateko sortuak zirela ziruditen. Bere begiak marroiak ziren. Oso handiak. Begirada marroi hori mantentzea, ezerosoa izateaz gain, ez zitzaidan batere erraza suertatzen. Dena dela, oso erakargarriak ziren.

Hori guztia ikusita, neure buruari debekatu nion lepotik bera ikusten nuena aztertzen jarraitzea, ordurako bero samar bainengoen, baina, askotan gertatzen den legez, nire begiek ez zidaten jaramon handirik egin.

Ez zuten nahi izan.

Eta begietatik jaistean, zerekin eta bularrekin egin zuten topo, eta nire begi maltzurrek hortik azterketa sakon bat egin arte ez mugitzeko erabakia hartu zuten. Erabaki honek urduritasun zein antsia handia sortarazi zidan, bera titiei begira nengoela konturatuko zela ziur bainengoen. Handiak ziren. Akaso soinekoa estuegia. Formak oso ondo markatuak zeuden. Bikainak. Titi punta pare horrekin zer egin pentsatzen hasi nintzen eta ideia dezente bururatzen zitzaizkidanez, beste alde batera begiratzera behartu nuen nire burua.

Baina ezinezkoa izan zen.

Orduan triangelu perfektua asmatu nuen: *bularrak-begirada-ispilua*, eta angelu ezberdinetatik begiratzeari ekin nion. Baina nire begiek triangeluaren goiko angelutik bueltatxo bat eman eta bere begiradarekin topo egiten zutenean, urduri jarri ninduen zerbait aurkitu zuten. Bera ere antzeko *azterketa* bat egiten ari zen eta jada bere begiradak ez zuen alde egiten. Azterketa bukatzeko pixka bat beherago jo behar izan nuen. Hankak gurutzatu zituenean, gona luzeak zango sendo bat utzi zuen agerian. Honen gainean, belaunean, eskularru luze pare baten barruan, atzamarrak jolasten hasi ziren, eria behin eta berriro emeki mugituz eta nire irudimena leherraraziz. A zer nolako laztan goxoak egingo zituzten atzamar trebe horiek!!

Eta bat-batean... begiak itxi zituen.

Jarraian, mingainak ezpain gorriak leunki miazkatu zituen eta lehen gurutzatuak zeuden hankak, jadanik ez zeuden hain gurutzatuak. Eserlekuan egokitu zen. Belaunean jolasten aritutako hatzek beste jolas bat bilatu zuten, bai eta aurkitu ere. Nire begirada harrituaren aurrean, soineko beltz horren gainetik hasi ziren titiburuak laztantzen. Eta zin degizuet: oraindik harritzen nau une horretan, ene bihotzaren taupada izugarriak entzun ez izanak.

Bera bagoian sartu bezain pronto, holako neska puska batekin nire etxeko ohean egingo nituzkeen milaka lizunkeria bururatu zitzaizkidan eta une horretan, berriz, pentsatutakoa gauzatzen ari zenean, ea bagoia hutsik zegoen jakitea besterik ez zetorkidan burura.

Hutsik zegoen.

Bitartean, beste ezarrera egokiagoa lortzen saiatu zen. Lortu zuenean, eskularru beltzak kendu eta lurrera bota zituen, bere eskuineko eskuak beherako bidea hartu zuelarik. Ezkerrekoa, berriz, soinekoaren barnealdea miatzera abiatu zen. Eskuineko eskuak pixkanaka gona gora eramanean, belaunak agerian utziz. Hala ere, bere izter sendoak ikusteko ez zuen ia lanik egin behar izan: oinak nire eserlekuan jarri zituen eta gona erraztasunez jaitsi zen, ene gorputza bi hanka luze horien artean geratu zelarik.

Kuleroak gorriak ziren.

Bere atzamarrek ondo asko zekiten egin beharrekoa, eta baso beltz horretan sartzeko hartu behar zuten bidea laguntzarik gabe aurkitu zuten.

Eta masturbatzen hasi zen.

Bitartean ni han nengoan, zer egin ez nekiela. Bera nirekin jolasten ari zen eta nik ez nekien festa pribatua zen edota gonbidaturik onartuko zuen. Dena den, gauza bat oso argi zegoen: festa ez zuen bukatutzat eman nahi.

Kuleroak kendu zituen.

Eta atzamarren artean, gaeko lehenengo izar distiratsua bailitzan, altxor bat agertu zen, oso desiragarria iruditu zitzaidana. Atsedetik hartu gabe, hatz trebe horiek aurkitu zutenarekin jolasten jarraitu zuten eta ez zen denbora gehiegirik pasa lehenengo plazer hasperenak botatzeko. Nik jada ezin nuen gehiago.

Baina nire gonbidapena iritsi zen.

Eskuineko eskuaz jo ta fuego ari zen. Ezkerrekoa niregana luzatu zuen eta hitzik esan gabe "etor hadi hona" esan zidan. Berehala ulertu nuen. "Honek ez du laguntzarik behar, argi dago, baina orain arte, nirekin aritu da jolasten eta dagoeneko jokia bukatu da".

Belauniko jarri nintzen eta izterrak musukatzen hasi nintzaion. Begirada gora zuzendu nuen, aurpegirantz. Berak irribarretsu begiratu zidan eta berriro itxi zituen begiak. Oraingo honetan ere ez zuen ezer esan behar izan, begirada horrek dena esan baitzuen. Beraz, begiak jaitsi eta izter miragarri horiekin jarraitu nuen. Handik gutxira, nire ezpainak beste leku batera zuzendu nituen. Hor, baso beltz horretan murgildu nintzen, beldurrik gabe, eta hain ondo aritutako atzamarrak kendu zituen. Lan erdia egina zegoen eta niri zegokidan lana bukatzea.

Nire mingaina, atsegin handiz, klitoriaren inguruan jolasten hasi zen. Bitartean berak ez zuen denbora alferrik galdu nahi, beraz, lehen libre utzitako eskuak titiak laztantzera dedikatu ziren, hasieran emeki eta gero bortizki. Nik, bai mingainaz bai hatzez egiten

nizkion laztanak geroz eta gusturago hartzen zituen. Noizbehinka, plazer espasmo batek eraginda, zangoak ixten zituen azkar eta bortizki baina berehala zabaltzen zituen berriro, gonbidatuak bere losin eta musu goxo horiekin jarrai zezan.

Plazer espasmoak eta oihu txikiak.

Hauek sarriagotan suertatzen hasiak ziren. Lehertzeko moduan zegoen. Jadanik ez zen sartzen bere eserlekuan. Eserlekua txiki-txikia geratu zitzaion. Gorputz eder hori kontrolik gabe mugitzen zen. Une horretan, bidaiariren bat sartu izan balitz ere ez ginen konturatuko, ez baikenuen tutik ikusten. Haren eskuek ez zioten uzten nire buruari lorategi zoragarri horretatik alde egiten, eta orduan nire ezpain zoriontsuek lorategiko lorarik ederrena xurgatu zuten azkenengo aldiz.

Oihu luze batez bukatu zen. Orgasmo baten ondorengo isiltasuna nagusitu zen. Trenaren traka-traka-traka eta gure arnasa besterik ez nuen entzuten.

Zutitu eta eseri nintzen. Pozik. Izerditan blai eta ahoa lehor-lehorra. Kuleroak jantzi zituen.

Ez zuen ezertxo ere esan. Egia esanda, ez zen beharrezkoa. Hurrengo geltokian altxatu eta aterako bidea hartu zuen. Ziurrenik ez zen bere geltokia izango. Baina jaitsi baino lehenago, begiratu zidan irribarretsu eta azkenengo aldiz, begirada zoriontsu baten bidez, esan behar zidan guztia hitzik gabe adierazi zidan. "Eskerrik asko, neskatxa".

Eta begirada hori ikusi nuenean, ni ere munduko emakumerik zoriontsuena sentitu nintzen.

**XABIER ETXANIZ ROJO** 1971an jaio zen Trintxerpen (Gipuzkoa). Euskalduntze Alfabetatze Diplomatu da eta Trintxerpeko AEKn egiten du lan. Hemen argitaratzen den *Eta begiak itxi xituen* hau bere lehen ipuina da, eta berarekin Pasaiaiko Udal Euskaltegiko sariketa irabazi zuen 1995ean. Harrezkero hainbat lehiaketatan jaso ditu sariak: Tene Mujika (2. saria 1997, 3.a 1998. Deba), Gabriel Aresti (1. akzesita. Bilbo, 1998), Pasaia Hiria (1. saria. 1998) eta On Manuel Antia (3. saria. Urniera, 1998). Bi ipuin ditu argitaratuak Tene Mujika Lehiaketaren eskutik: *Tabakoa txarra da osasunerako* (Elkar, 1997) eta *Ezkontza* (Elkar, 1998). Honetaz gain, *Estreinaldia* ipuina argitaratu zuen 1996an, *Egunkaria*-ren KZ gehigarrian.

## 2. ARIKETA. TESTUA AZTERTU

1. Harritu egin al zaitu bukaerak?
2. Sinesgarria iruditzen zaizu egoera?

## LITTLE ARRATIA KLUB

### Paddy Rekalde

Miren Arantzazu Loinaz gauaren ilunean hurbildu da tabernara. Arantxi, halaxe esaten diote lanean, etxean... eta bera bezalako neskazarren koadrilan, apur bat ikaratuta dabil. Halako betebeharrrik ez diote inoiz eskatu lanean, alegia, Euskadi Irratian, baina ezezkorik ematen ez dakienez, ba, hortxe dabil detektibe lanetan-edo.

Arantxi, esan dio nagusiak gaur goizean, Goierriko berriak eta Susunkordako artzainaren entrebista eman eta gero, Bilbora joango zara, Little Arratia Club horretara... Handik bidaltzen dizkiguten komentarioak, txisteak eta berriak oso lizunak izaten dira, zikinak, itsusiak, badakizu... Gure entzuleak hainbat aldiz kexatu dira, inongo moralik eta etikarik ez daukatelako... eta, bueno, gustatuko litzaiguke zuk zeuk hori guztia konprobatzea... bai?

Eta Arantxik, lana eta morroikeria bereizten ez dakienak, baietz esan dio, eta gaueko bederatzietan, Elizburuko seroraren sendabelarren gaineko aholkuak irratiz eman ostean, Bilbora abiatu da.

Eta hortxe dago, kale ilun bateko farola baten ondoan, nahikotxo ikaratuta, horiek ez direlako kalean egoteko orduak, ezta lekuak ere. Hogeit bat metrora, laranja koloreko neoi argiez tabernaren izena, LITTLE ARRATIA KLUB, edozein putetxek iragarriko lukeen moduan. Atzetik agertu zaio andre saldo bat, denak guapa-guapa, pelukeriatik pasa berri, antza, gorra bailira bezala berbetan... zoroak bezala barrezka. Eta tabernara sartu behar direla ohartzean euren atzean jarri eta euren artetik taberna barrura sartu da, beldurak eta lotsak uxatuz.

Taberna iluna da, zulo bat, kea nonahi, eta musikak, *Dios salve al lehendakari que no es un rastafari...*, dardarka ipintzen ditu bafleak. Hormetan, han-hemenka, koadroak eta posterrak, baina ez nolana hikoak, ez, folk-pornoa dira denak, alegia, hor aizkolari bat, enbor baten gainean, aizkora eta guzti, baina gerritik behera biluzik; han, neska dantzari bat, betaurreko beltzak eta errape ederra airean... halakoxeak denak, zakil erraldoi itxurako kalabazekin nahasturik. Jende artean, bikini jantzita, kamarera bat, tangaren aurreko trianguluan ikurrina daramana, hara eta hona, ipurmasailak dantzan. Barra gainean kandela gotiko batzuk zintzilik, eta atzean Stagger, bertoko nagusia, Jonlon kamarero jonki antzeko horrekin berbetan. Barrako muturretik, aitzurtu xamar, Maurixi, atso alarguna, oihuka.

- Hi, Stagger, kabroi horrek, noz atarakostak trague, miñe siketu in jatak-eta!

Eta bularren erretenetik purutxo bat atera, isiotu eta, aurreko botilei begira, abesten paratu da Maurixi. Arantxi zeharo ikaratuta dabil, hankak paralizatuta. Infernuko zuloraino sartu dela uste du. Tabernako giroari buruzko apunteak hartu behar zituen, bihar nagusiari emateko, baina ez da ezer egiteko gauza. Nekez hurreratu da barrara, eta nekezago atera zaio ezta ahotsa.

- Tonika bat, mesedez, izotzik gabe...

Staggerrek esku artean darabilen *sol y sombra* eskaini dio.

- Lar zurittute ikusten zaittut, potxola!

Eta Arantxik ezetz, tonika nahi duela, mesedez.

-Bueno, guruzun moruen...

Eta orduan isildu da tabernako musika. Zoroen pare oihuka hasi diren andren aurrera Dimitri agertu da, stripper errusiarra, moreno, altua... berehala hasi zaio gerria dantzan, aurrean dituen andren zoramenerako. Dantzan gerria, bai, baita haren esku ederra sabelpeko kirruen artean olgetan ere. Nahikoa dela pentsatu du Arantxik, nahikoa ikusi duela honezkerok, eta komunetara abiatu da ziztu bizian, infernutik babestu nahian-edo. Karrajoa taberna bera bezain iluna da, lau ate argitzen dituen fluoreszente more batekin. Lehenengoa zabaldu eta botila kaxak agertu zaizkio pilatuta, horien artean halako

hasperen batzuk entzun ditu. Itxi eta bigarrena zabaldu du. Hantxe, jesarrita, neurri natu-raleko Balendin Berriotxoakoa santua ikusi du, horma ondoko aulki berde dotore batean jesarrita, eta inpresioa eragin dio Arantxiri, horrela, santua bera aurrez aurre baleuka bezala. Atea itxi eta santuarengana hurreratu da, astiro, urduri, tabernako giroa zein santuaren presentzia direla-eta. Hantxe, santuaren ezker aldean letrerotxo bat. *Balendin Berriotxoakoa Deunak zerura eramango zaitu*. Harrituta geratu da Arantxi santuari begira. *Jar zaitetz, hankak zabalik, ene altzoan, 2 euroko txanpon bi ene bularreko zirrikituan sartu eta, ondoren, ene buruaren alboko bi zuloetan zure eskuak. Laster izango ara zerurako bidean*: Holaxe amaitu da letreroa. Eta holaxe egin du Arantxik, birritan pentsatu barik, berezko duen fede kristau itsuak hipnotizatuta. Bi euroko txanpon biak sartu ostean eskuak barruratu ditu santuaren alboko bi zuloetan. Motor baten zarata fina entzun du orduan, baita eskuburdinetan bezala eskuak harrapatuta sentitu ere. Urduri dago Arantxi, bihotzaren taupadak ezin agudoago. Lotsagarri sentitzen da egoera horretan, haren altzoan hankazabalik, eskuak mugitu ezinean... Orduan igarri du halako berotasun umeltxo hankartean, astiro baina sendo egingo lukeen ile-sekadore baten laztan beroaren modukoa. Arnasa estutu zaio, sabelpeko ezpainak, berriz, zabaldu... eta hanpatu... eta busti... Begiak bilduta, arnasa estuago, agudoago. Eta zer den jakin barik, suge moduko zeozerk laztandu egin dizkio sabelpeko ezpainak, eta hauen artetik alu barrura sartu... eta atera... eta sartu--atera ibili zaio suge antzeko hori Arantxiri, eskuak lotuta... altzo santuan, zaldi baten gainean bezala, gorabehera dabilela. Bost minutuz. Plazerezko zeru arrosa ikusi du Arantxik, bost minutuko arrapalada horretan. Plazerezko zeru larrosa orain arte ezezaguna Arantxiren barrenetan...

Handik hamar minutura, tabernako barran dago. Ginebra bat, izotz pare batekin, eta bi euroko txanpon batzuk eskatzen dabil Arantxi... irribarre goxoa eta mihia olgetan ezpainetan... Atzean, Dimitri, eta honen inguruan, oihuka, zoro, andra saldoa...

PADDY REKALDE. Deustua, 1964. *Aizu Paddy!* (AEK, 1997), *Whiskey koloreko gauak* (Txalaparta, 1999), *Sex abaroa* (Txalaparta, 2000), *Rebel Mayo Colorao* (Txalaparta, 2002) eta *Bilbo dub kronikak* (Susa, 2004) liburuak argitaratu ditu.

### 3.ARIKETA. TESTUA AZTERTU

1. Protagonistaren jarrera aldaketa argia planteatzen da. Zertan datza?
2. Egoera berri bat (putetxeak, sexshop dendak, stripper klubak...), ezagutu aurretik eta ezagutu ostean aurreiritzia aldatzen da? Zelan adierazten da?



## URTEBETETZE - OPARIAREN AITZAKIAN .

Xabier Mendiguren

- A i !
- Zer?
- Azazkalak.
- Barkatu, nahi gabe izan da.
- Ez, ez, segi.
- Hola?
- Bai, orain ondo.
- Nola bi hatz eskatu zenizkidan urtebetetzerako...
- Zu bai eskuzabala.
- Oraindik beste zortzi geratzen zaizkit.
- Eta zer egin behar duzu horrenbeste hatzekin?
- Izango da beste zuloren bat tapatzeko, ezta?
- Izango da zer edo zer. Baina zuk oraingoz segi horrela.
- Hemen?
- Goraxeago.
- Hola?
- B a i , bai, segi.
- (..)
- Gustura?
- Bai. Itxoin... geldi.
- Zer?
- Ez, ez dut nahi azkarregi amaitzea.
- Aterako ditut hatzak?
- Ez, ez, utzi hor.
- Itxoin. Postura egokia hartu behar dut... Hola ondo.
- Kontaidazu zer edo zer.
- Kontatu... zer?
- N a h i duzuna.
- Ni ez naiz berez egoera hauetan asko hitz egitekoa...
- Kontaidazu lehenengo aldia.
- Lehenengo aldia?
- B a i , estreinaldikoa.
- Ez naiz gogoratzen.
- Nola ez zarela gogoratzen?
- Lehenengo aldi asko daude. Muxu ematen duzun lehenengo aldia, titia ukitzen diozun lehenengo aldia, zakila hartzen dizuten lehenengo aldia...
- B a kontaidazu bat. Politena.
- Ez dakit.
- N o l a ez dakizula? Segi hatzak mugitzen.
- Horrela?
- B a i , bai... Hatz batekin Hobe.
- Honela?
- Z e ondo...

(...)

– Ondo?

– Uf! Primeran.

– Pozten naiz.

– Jarri hor. Orain nire txanda da.

– E z da derrigorrezkoa. Zeure urtebetetzeko oparia zen.

– B a i n a n i k n a h i d u t . E t a h o r k o h o r r e k e r e b a i , n i k u s t e .

– B a i , h o r k o h o r r e k . . .

– Baina lehen ez didazu kontatu.

– Zer?

– Lehenengo aldia.

– E z n a i z e l a o r o i t z e n !

– Z e l o t s a t i a .

– A !

– Zer?

– H o r i . . . g u s t a t u e g i n z a i d a l a .

– B a , k o n t a t u z e r b a i t , b e s t e l a g e l d i t u e g i n g o n a i z .

– E z , e z , e z g e l d i t u .

– B a k o n t a t u .

– Z e r n a h i d u z u k o n t a t z e a ?

– A d i b i d e z , t o k i a . K o t x e b a t e a n ? K a n p i n e a n ? G u r a s o e n o h e a n k a n p o a n z e u d e n e a n ?

– E z d a k i t b a .

– G e l d i t u e g i n g o n a i z e l a .

– E z , e z , s e g i .

– K o n t a t u b a .

– G e r o . G e r o x e a g o . . .

(...)

– G u s t u r a ?

– A n i m a l i a b a t b e z a l a .

– Z i g a r r o b a t n a h i ?

– E z , e z . E z d u t e r r e t z e n .

– I n p o r t a z a i z u n i k e r r e t z e n b a d u t ?

– N o l a i n p o r t a k o z a i t b a ? E r r e l a s a i . B e s t e l a , m a r t x a h o n e t a n , e r r e t z a i l e e t a e z - e r r e t z a i l e e n a r t e a n b a n a t u k o g a r a s e x u - k o n t u e t a r a k o e r e .

– B a i g u a l , m a r t x a h o n e t a n .

– U f a ! Z e o n d o g e r a t z e n d e n b a t h a l a k o e t a n .

– B a o r a i n d i k e r e z o r d i d a z u b a t .

– B e s t e b a t ? D e n b o r a p i x k a b a t b e h a r k o d u t , e r r e k u p e r a t z e k o .

– E z , h o r i e z . E d o g e r o a g o i g u a l . I s t o r i o a r e n a e s a n n a h i n i z u n .

– E z d u z u e t s i t z e n , e ?

– E z t a p e n t s a t u e r e .

– B a , p e n t s a t z e n a r i n a i z e t a . . .

– E t a z e r ?

– B a , a u r r e r a p a u s o g e h i e n a k , n i k u s t e p o r t a l e a n e m a n n i t u e l a .

– Z u r e e t x e k o p o r t a l e a n ?

– E z , n e s k a r e n e a n . M a i d e r r e n e a n .

– K o n t a , k o n t a .

- Ez dago zer kontaktu handirik. Etxerakoan, despedidarekin batean, ba, muxu luzeagoak, eskua pixka bat sartu...
- Baina hori ez da lehenengo aldia!
- Niretzat bai.
- Baina egongo zen jauzi kualitatiboren bat, ez dakit, azentsorean sartuta edo...
- Azentsorean? Bai zera! Eta bizilagun batek irekitzen bazuen?
- Beti utzi liteke bi pisuren artean, stop sakatuta.
- Ba ez zitzaigun bururatu. Klaustrofobia emango zigun.
- Akaso. Pasako didazu nire poltsa?
- Hau?
- Bai, eskerrik asko. Komunera noa pixka batean.
- Bale.
- Baina zuk segi kontaktzen.
- E z dagoela zer kontaturik!
- Kontatzen ez badidazu, ez dago holako beste urtebetetzerik.
- Hortaz zer edo zer asmatu beharko.
- Orduan bai, ezta?
- Jakina.
- Edozer egiteko prest sexuagatik.
- Edozer ere ez baina.
- Zer egingo zenuke zuk sexuagatik?
- Hori zaila da esaten.
- Hiltzeko gauza izango zinateke?
- Hiltzeko? Ez dut uste.
- Eta lapurtzeko?
- Gauza txikiak badira...
- Eta gezurra esateko?
- Askotan esaten ditugu, ezta? Ze guapa zauden horrela.
- Gezur bat al da hori?
- Ez! Egia berdadera. Eske, ikusi zaitut sartzen eta...
- Tararan.
- Eman buelta. Ez, beste aldera. Horrela. *Chapeau!*
- Gustatzen?
- Erretratatzeko moduan. Argazkiak ateratzen dituen mugikor horietakoa daukat nahi baduzu...
- Ezta pentsatu ere.
- Txantxa zen. Zatoz hona.
- Hemen...
- Bai, txokoan.
- Eta norbaiti sufriarazteko? Kapaz izango zinateke?
- Ahal dela ez.
- Et a besterik ezean?
- Nahita ez behintzat. Nahikoa sufritzen dugu bestela ere, ezta?
- Esan egia: zein da maitasunagatik edo sexuagatik inoiz egin duzun txarkeriarik handiena?
- Hola, gogoratzen naizela, bakar bat ere ez.
- Hara gure xantua!
- Benetan. Nahi gabe igual egingo nuen noizbait baina...

- Sudurra ez baina zakila luzatzen zaizue zuei halako gezurrekin.
- Ai, ai, ai...
- Ikusten? Hasi da pixkortzen.
- Halako masajeeekin, beharko.
- Ba, ez dago masaje gehiago istoriorik ez badago.
- Azkar hasiko naiz ni zerbait asmatzen.
- Asmatzen ez: egia izan behar du.
- Eta nola dakizu egia esan dudala? Sudurra berdin luzatuko zait.
- Sudurra?
- Sudurra edo.
- Portaleko abenturekin ari zinen. Mainerren etxean.
- Mainerren etxean, eta beste batzuetan ere bai.
- A bai? Horrek morbo gehiago du.
- Oraintxe etorri zait burura nola behin... Joder!
- Zer?
- Gure erruagatik atso bat ia hilda geratu zela.
- Hara! Sufriarazteko gauza ez zena.
- Eta okerrrena da hantxe utzi genuela, batere lagundu gabe.
- Hiltzaile halakoa! Mainerren etxeak zortzi pisu zeuzkan, azentsorea etengabe zebilen gora eta behera, eta portalean ere uneoro jendea sartzen edo ateratzen. Eta egun batean, ez dakit Maiderrri edo niri, nori bururatu zitzaigun, aldameneko atarian sartu ginen: etxe zahar bat da, lau bat pisukoa, eskailera egurrezkoak dituena eta azentsorerik ez.
- Eta han izan zen lehenengo aldia?
- Lehenengoa edo. Hala moduz.
- Eta atsoa?
- Etxe hartan zaharrak bakarrik bizi ziren, eta pisuen erdiak hutsik zeuden gainera. Baina portalera edonor sartu zitekeen. Hortaz, pentsatu genuen gora igotzea, goiko pisuraino.
- Eskaileretatik.
- Bai. Esan dizut egurrezkoak zirela, eta hots dextente egiten zuten. Beraz, poliki-poliki igo ginen.
- Disimuluan.
- Baina aldi berean barrez ari ginen. Badakizu egoera horietan barregura ze erraz sortzen den.
- M-m. Zuk segi kontatzen. Beste zigarro bat erre behar dut.
- Zapatak eskuetan igo ginen, eskailerek hotsik ez egiteko. Eta azken mailartera iritsi ginenean bertan geratu ginen. Goraxeago azken pisua zegoen, ganbara tankerako bat, eta han atso bat bizi zen bera bakarrik. Txikitan han jolasean ibilita zekien Maidenek.
- Hortaz Mainerrentzat ez zen lehenengo aldia.
- Ez! Bueno, ez dakit. Nik uste baietz. Esan nahi nuen umetan bihurrierietan-eta ibiltzen zirela han.
- Eta?
- Ba, hasieran ilun zegoen dena. Igo ere argia piztu gabe egin ginen, paretari eta elkarri helduta. Baina gora ailegatu ginenerako begiak

ohitu samarrak geneuzkan ilunpera, eta eskailera gainetik ere gaueko argitasun hori sartzen zen, ilargiarena edo kaleko argiena.

– Ze erromantikoa.

– Pixka bat bai. Urduri geunden biok, urduri eta pozik nik uste, eta arropa kentzen hasi ginen.

– Zer zeneukaten jantzita?

– Jo! Ba ez dakit. Ez naiz oroitzen.

– Ze gutxi fijatzen zareten mutilak.

– Arropa azpikoetan neukan nik burua. Gogoratzen naiz bularretakoa askatu ezinik nenbilela, eta Mainerrek berak askatu behar izan zuela.

– Normala.

– Titimuturrak gogortuak bezala zeuzkan, puntan.

– Nik bezala?

– Bueno. Ez guztiz, baina antzera.

– Antzera? Zuentzat titi guztiak al dira igualak?

– Ez, igualak ez.

– Baina antzera. Ya.

– Nik esan nahi nuen...

– Ulertu dut, lasai. Segi istorioarekin.

– Ba, erdi biluzik geundela, muxuka eta hola hasi ginen.

– Muxuka eta hola? Xehetasunak, mesedez. Nor-Nori-Nork, baldintza eta subjuntibo, ioder...

– Gogoratzen naiz halako dardara bat izan nuela kuleroak jaitsi eta ile guztia ikusi nionean. Lehenengo aldia zen.

– Eta ilea ikusten al zen, gauean?

– Bai, bai. Esan dizut ilunpera nahiko ohituta geundela ordurako.

– Eta nolakoa zeukan?

– Zer?

– Ilea, Mainerrek. Nik bezalakoa edo...?

– Ez, ez: Mainerrek argiagoa zeukan, eta ez hain ugaria.

– Errubia naturala. A zer mauka!

– Ba, hor geundela, hotsa ere egingo genuen-eta...

– Ze hots?

– Ez dakit ba nik. Barreak edo. Postura hartzeko mugimenduak edo.

– Orgasmoaren orroak edo.

– Ez, horretara iritsi gabe geunden.

– Eta?

– Ba, laugarreneko atea zabaldu zela, eta hor azaldu zela amona Ximona.

– Amona Ximona al zuen izena?

– Hala omen zuen, bai. Ba, amona Ximonak atea zabaldu eta gu eskaileretan behera abiatu, dena izan zen bat.

– Amona baino azkarrago ibiliko ahal zineten behintzat!

– Bai baina, galtzak orkatiletan, zapatak erantzita, alkandorak-eta eskuan... Ez geunden korrika egiteko egoera aproposenean.

– Eta amonak harrapatu zintuzten.

– Bai zera. Saiatu bai. Nola-hala, dinbili-danbala gindoazen Maider eta biok, eta beste norbait sumatzen genuen geure atzean.

– Amona Ximona.

- Horixe. Baina halako batean estropezu egin zuen, eta egundoko burrundara ateratu zuen eskaileretan behera.
- Eta ikusi zenuten erorita?
- Ikusi ez. Zarata bat-batean gelditu zela konturatu ginen, eta ez zela ezer entzuten gure hotsaz kanpo. Baina gu ordurako portalean geunden, arropak ahal zen moduan txukuntzen, handik ihes egiteko.
- Eta ez zen beste bizilagunik ateratu?
- Orduan behintzat ez. Gorraizea izango zuten, edo lapurrak zebiltzan beldurra, eta nahiago izango zuten etxe barruan geratu.
- Eta amona gaixoa han.
- Okerrena izan zen, kanpora ateratzera gindoazela, haren aienea entzun genuela, kexuka.
- Eta zuek zer egin zenuten?
- Isil-isilik alde egin.
- Atso gaixoa aiurumaka utzita, zuen haragikoikeriagatik.
- Beldurragatik ere bai.
- Izan ere, berekoia da plazera.
- Ba, horren kontra zer edo zer egin beharko da, ezta?
- Adibidez?
- Adibidez, bata besteari oparitu, eskuzabal.
- Urtebetetze eguneko oparia bezala?
- Urtebetetze-oparia lehenagokoa zen.
- Eta bai?
- Hau propina.
- Ai.
- Zer?
- Ez, ez, ondo. Segi.

**XABIER MENDIGUREN ELIZEGI.** Beasain 1964. Bere liburuen artean honakoak aipa litezke, besteak beste: *Sei ipuin amodiozko* (1986), *Bekatuaren itzal-a* (1995), *Berriro igo nauzu, nobela* (1997), *Obsexuen kluba*, gazte-literatura (Elkar, 1997), *Gure barrioa 1975* (1998). "Informazio sexuala" ipuina argitaratu zuen bilduma *honetako* lehen liburuan: *Euskal idazleen ipuin erotikoak* (1998)

#### 4.ARIKETA. TESTUA AZTERTU

1. Zenbat istorio kontatzen dira? Zeinek hartzen du narrazioaren pisua?
2. "Gatibu" taldearen *Musurre sartunde* abestia entzun eta narrazioarekin alderatu. (CDan dago abestia)

## SMS moreak

### Esti Arozena

Urte berri eguna zen. STk SMS bat idatzi zuen mobilean baina ez zen urte berri ona opatzeko mezu tipikoa:

**eun tontua aurrikustn da. nabazu torri bixitan.**

TTk ilusioz irakurri zuen ustekabeen harrapatu zuen mezutxoak.  
Urduritasuna gainditzean erantzuna:

**ordu erdin burun hor naiz.**

Urteroko programazio berdinari begira bestondoa pasatzen sofak bakarrik egotetik konpainia goxoan egotera badago aldea eta luze joan zitzaien denbora STri. Portaletik heldu ziren soinuei adi: atea, igogailua, ahotsak... Azkenean, txirrina.

-Bai.. iepa, pasa pasa....- irribarretxo eta kontaktu lotsatiak.

Bezperako bestaren balorazio orokorra egin: Etxeratze orduak aitortu, pasarte aipagarriak umorez konpartitu, elkar ikusi zuten unea komentatu... Begirada telebistan, burua hurrengo pausurako ausardia bila eta gorputzak gero eta hurbilago, goxoago. STk TTren bularrean bilatu zuen babes, honek ilea laztan ziezaion, arpegia ondoren... Kontaktuaren goxotasuna berotasun bilakatzean, lotarako goizegi baina ohatzerako garai egokia zela erabaki zuten; bezperako sagardo, garagardo, xanpain, belar eta gainontzeko gehiegikerien nahasketaren ondoreak lagundurik.

Gustura hartu zuten maiz ere moreen epela. ST hasieran geldirik, jasotzen ari zena disfrutatuz. Ohe-kideak bera berotzeko zuen gaitasunari erroka boteaz. TTren eskua ez zen geldirik egoteko gai eta oheko arropa erosoaren azpitik goxoki laztantzen zuen ondo ondoan zuena???. Bere esku-hartzearen arabera aurpegi adierazpena eta arnasaren intentsitatea aldatzen zitzaizkion STri. TTK gustuko zuen jolas hori: bere laztanek eragindako efektuak ikusi, entzun eta sentitzea atsegin zuen. Ikutu, zanpatu, musukatu, goxatu, estutu. Eskuak, sabela, izterrak, lepoa, titiak... Toki hezeenera hurbiltzen zuen eskua, baina adarretatik hartu aitzin bertze buelta bat... Oraindik ere geldirik zegoen STren zirrara eta gogo handituz. Gotti, ezker, eskuin, bettixigo ondorek pasa...

-Honi aspaldi ez diot kasu aunitz egin- erran eta harira. Lanak zaildutako eskua hankartean sartu orduko inork erakutsi beharrik gabe aurkitu zuen erakusleak klitoria. Hasieran poliki, mugimendu zirkular ttikiak, azkarxeago, mantso... tarteka baginara bidaiatxo egiten zuen hatz pareta gero eta ausartago zebilen. Hatsankak gero eta nabarmenagoak. STk ezin zuen gehiago! Behatzen mugimendu abilek bilatzen zuten erreakzioa lortu zuten ezinbertzean eta hortik aitzinera bera zen gogo biziz TTri plazera ematea desio zuena.

Ahotik ihes egiten zion mingaina mingain bila hasi zen jostari, bidean aurkitzen zuen guzia miatzatuz. Eskuekin larruazalaren osotasuna une batean bereganatu nahirik. Saiakera horretan sutsuki ari zelarik osotasunari nabarmendu zitzaien atal gogortua aurkitu zuen eta hantxe entretenitu zen. Zeukaten arropa pixarra ere tratatik kendu eta eskuak berriz eurenera presaka. Mingaina titira bata, belarria ahoan sartua bertzeak, eskuak plazer-gune famatuenetik mugitu gabe baina etengabeko mugimenduan bero. Zakilari eskuaren inbidia sartu zitzaien eta ordura arte eskuak goxoki landutakoa beretzat

nahi izan zuen. Behatzek egindako lan onari esker errex barneratu zen. Urak bere bidea aurkitzen duen naturaltasunarekin.

STen arnas estuak mutilaren mugimenduen erritmoa motibatzen zuen eta bukaerara arriskutsuki hurbiltzen ari zela ohartzen zenean bere hankekin mutilarenak korapilatu eta mugimendua oztopatzen zion. Ez zuen bukatzerik nahi, eta ez hazia barnean isurtzearen kezkatatik bakarrik. Gustatu egiten zitzaion mugimendu gabe ere zakila bere barrenean sentitzea. Buruarena ahantzi eta gorputzaren legea nagusitzen delarik soilik jartzen den aurpegi adierazpen imitaezinarekin elkarri begira egoteko tartetxoa hartuz.

Atsedean txikiak tartekatzen ziren baina pixkanaka zaldunaren erritmo gorakorra gailentzen zen. Kondo bilastuak hasteak batari pereza eta bertzeari zakilaren gogortasuna galtzeko beldurra eman arren "eztugu prisarik" erran eta ohetik bertatik tiraderetan hasi zen ST babes bila. Uste bezain erraz aurkitu ez eta ohetik ateratzeko altxatzeaz zelarik:

-Nik badut- erran eta TT egongelan utzia zuen poltsaren bila joan zen.

Bitik bat mesillatxoan utzi bertzea ireki eta jantzi. Parentesia etzen jarraitzeko arazo izan. Laster zeuden berriz ere lehengoan. ST arnasotsak ixilpean gorde ezinez, TT mugimendu bizkorrez baina harrigarriki isilik. Mugimenduak kolpeak izatera ailetu ziren. Bizilagunek entzuteko modukoak ziren ohatzeak paretaren aurka ateratzen zuen soinu errepikakor adierazgarria. Jada ez zegoen atzera bueltarik. Ez zegoen atsedean txikiak hartzeko betarik. Jada ez ziren elkarri begiratzeko gai ere, euren onetik aterata zeuden biak. Eman eta hartu nahia. Hartu eta eman nahia. Abiadura eta berotasun leherketa. Hezetasuna nagusi kanpo eta barnealdean.

Arnasak euren onera ekarri bezain laster altxa zen TT latexko hesia kentzera. STgatik balitz horrela geldi geldirik egonen lirateke postura berean lo hartu arte. Laster zen bueltan ordea. Bi gorputz biluziak elkarren gose ziren oraindik, egunerokotasunak ase gabeko antsiak erakarriak, berriz noizbait elkartuko direnaren ziurtasun ezaren pasioak itxekiak. Loak hartu arte mimotxoak eginez geldirik egoteko gai ez zirenak.

Handik astebetetera STk mezu bat idatzi zuen bere mugikorrean:

**"Kondo 1 antzi zĩnun ne loglan. Ze itn al dgu? jj"** bai na ezin izan zion bidali.

TTk zabor ontzi batera bota zuen mobila ihesi joan aintzin.



## 5. ARIKETA. TESTUA AZTERTU

1. Zertan da ezberdina narrazio hau?
2. Zein dira protagonistak ? Asmatuko zenituzke izenak?
3. Emango zenioke beste amaiera bat?
4. Mezu hauek SMS bihurtu.

1. « Kaixo, potxola:  
Zu ikusteko irrikaz nago. Zu gabe nire gorputzari orduak mendeak egiten zaizkio ».

2.« Patxi:  
Nire ahoak zure gorputza behar du. Etorri azkar, sutan naukazu».

3.“Txo!:  
Jolas gaitezen 42ra. Ni 4a eta zu 2a”.

4. “Sexua behar duzu?:  
Sakatu 1 frantses baterako. 2 6grako. 3 trioa egiteko. Eta nire zenbakia konpletu baterako”.

## 2. JARDUERA.NARRAZIO EROTIKOEN EZAUGARRIAK ETA IRUZKINAK.

### NARRAZIO EROTIKOA IDAZTEKO AHOLKUAK

**1. Zehaztu testu erotikoa ala pornografikoa idatzi nahi duzun:** narrazio pornografikoak idaztea, berez, ez dago gaizki, baina ez ditugu kontzeptu biak nahastu behar. Erotismoa sotila eta sentsuala da, iradoki egiten du, ez erakutsi. Kalitatea eman eta eskatu egiten du. Pornografia, berriz, instintuzkoagoa da, zakarragoa, dena erakusten du; lengoia zuzen eta sinplea erabiltzen du. Erotismoa iradokitzailea da; pornografia, berriz, deskribatzailea.

**2. Eman iezaiozu narrazioari euskarri sendoa:** gure istorioa ekintza sexualen metaketa hutsa bada, ez da oso sinesgarria izango. Narrazio erotikoa izanda ere, narratzailea, denbora eta pertsonaiak sakonki joratu behar ditugu: sakontasuna eman, beste edozein narraziotan bezalaxe.

**3. Manten ezazu narrazioaren tonua:** narratzeko erak barruan kontatzen duena islatu behar du. Sinesgarritasunaren mesedetan, joratu nahi dugun gaiak erabilitako formarekin zerikusia izan behar du: ez dugu berdin deskribatuko neskato baten lehen harremana, edo eskarmentu handiko emakumearena. Idazteko teknika asko erabil daitezke tonua edo giroa mantentzeko: ironia, umorea, esajerazioak, elkarriketak, deskripzioak...

**4. Ihes egin iezaiezu estereotipoei:** filmetan agertzen diren estereotipo gehienak sexistak eta barregarriak dira (titi eta zakil handiak, depilazio zoragarriak, azal leun eta gaztea, lehenengo aldiaren mitifikazioa...); ez saiatu beti egoera idealak, politikak, bateratuak islatzen. Errealitatean gauzak ez dira beti horren idealak, eta gure narrazioa hobea izango da, baldin eta errealitateko ukituak ematen badizkiogu.

**5. Egin itzazu deskribapen sentsualak eta sakonak:** testuko pertsonaiek bost zentzumenekin antzematen dutena deskribatzeko gauza izan behar duzu. Ez erabili soilik ikusmena; egin erreferentzia dastamenari, ukimenari, usaimenari eta zure narrazioa kitzikagarriagoa izango da.

**6. Mantendu sinesgarritasuna:** ahal delarik, ez esajeratu. Ez da oso normala 16 urteko neska kulerorik gabe joatea eta bat-bateko orgia batean sartzea ezezagun batzuekin herriko merkatuaren ondoan. Gerta liteke, baina sinesgarriagoa egingo zaigu, kuleroak jantzita joatea institutura (nahiz eta laster erantzi) eta hiru klasekiderekin txortan egitea patioko komunetan.

**7. Ez zaitetz errepikakorra izan:** narrazio erotiko bat baino gehiago idatziz gero, edo narrazio beraren hainbat atal planifikatzean, hainbat gai eta egoera joratu. Denok ditugu fijazioak, baina fantasiari eta askatasunari bidea zabaldu, eta ez zaitetz beti gai beraren inguruan ibil.

**8. Kontuz ibil zaitetz egoera morbosoekin:** istorio batzuk oso kitzikagarriak izan daitezke idazten dituenarentzat, baina zeharo onartezinak zenbait irakurlerentzat.

Egoera hori sarritan gerta daiteke bortxakeria tartean badugu; oso ondo neurtu behar dugu gure narrazioan mina, indarra eta onespenik gabeko harremanak islatu nahi baditugu.

**9. Ohartaraz ezazu irakurlea:** narrazio erotikoa sexuaren presentzia oso gordina bada, pistak eman irakurleari, horrek aurrerago topatuko duenaren berri izan dezan. Puntu horrek ez dio idazleari bere askatasuna mugatu nahi, baizik eta hartzaileari irakurtzen jarraitzeko edo ez jarraitzeko bidea zabaldu.

**10. Azter itzazu beste sexuaren gustuko sentipenak:** gizonak eta emakumeak berdinak garen arren, sexu kontuetan oso bestelakoak izan gaitzke zenbaitetan. Sarritan gizonezkoaren ikuspuntutik idazten da, eta emakumea elementu pasibo edo hartzailea baino ez da izaten. Saia zaitetz hori ekiditen. Aztertu beste generoaren sentipenak, eta narrazio sinesgarria eta betea lortuko duzu.

**11. Argi utz ezazu fikzioa egiten ari zarela:** askotan gure kontakizuna errealitatea dela esateko tentazioa izaten dugu: "Ni Maritxu naiz, eta hauxe gertatu zitzaidan atzo Perurekin, lotsatu egiten nau kontatzeak, baina kontatu egingo dut, eta xehetasun pilo batekin gainera!". Hasiara ezin inozoagorik! Erotikotasunak fantasia eta fikzioa behar du, errealitatean gertatutakoa dela esateagatik ez da narrazio hobea izango.

<http://www.elhombresinsombra.es/biblioteca/c/C%C3%B3mo%20Escribir%20Un%20Relato%20Er%C3%B3tico.pdf> artikuluan oinarrituta.

## BI NESKA

*Aitor Arana. Ipuin Lizunak*

Anek eta Anak elkarrekin egiten dute lan plastikozko piezak sortzen dituen lantegi batean. Beren lana piezei bizargina kentzea da, hots, moldeetatik atera ondoren gera dakizkiekeen akatsak eta puntatxo latzak egoki kentzea, piezak leunak izan daitezen. Ogitartekoa jateko ordua eta bazkaltzeko ordua iritsi bitartean, denborak luze jotzen du normalean, eta Anek eta Anak ahaleginak egiten dituzte tarteka-marteka elkarrekin hitz egiteko. Horrelakoetan gehien maite duten gaia gizonezkoen "zerako zera" da eta barre egiten dute, askotan, kontu honetaz ari direla.

Aurreko batean beren arduradunaren "txoritxoaz" jolastu behar zutela bururatu zitzairen eta, nola edo hala, Patxi arduraduna beren pisura eramatea erabaki zuten. Hala bada, ezezkorik onartuko ez zuten erabaki sendoaz, lantegitik irteteko orduan arduradunari hurbildu zitzaizkion eta zuzenean harira joanez esan zioten:

-Aizu Patxi, Anek eta biok zakila miazkatu nahi genizuke, geure pisura etorriko bazina. Oso onak gara horretan, eta iluntze atsegina eman dezakegu hirurok.

Patxiri harridura sumatu zitzaion aurpegian, baina berehala erreakzionatu eta irri egin zuen maltzurki.

-Ondo da, baina baldintza batekin...

-Zein? - bi neska lagunek batera.

-Ondoren, neure makilaz zuen maginen sakonera neurtzen utziko didazue, bai?

Baiezkoa izan zen erantzuna, noski, eta nesken pisura abiatu ziren hiruak. Bertara iritsi eta berokiak kendu ondoren, zuzenean eraman zuten Patxi logela batera. Ohean etzanarazi, eta Ana galtzak askatzen hasi zitzaion, Anek alkandora kentzen zion bitartean. Zapatak ere erantzi zizkioten eta, Anak galtzontzilo urdinak eraitsi behar zizkionerako, gogor-gogor eginda zeukan Patxi taketa eta, barruko azken arropa kendu ziotenean, jauzi bizi bat eginez agertu zen nesken begi-bistan hogeitazentimetro inguruko buztana. Bihotzaren taupaden erritmoan, kolpetxoak ematen zituen gorantz zakil gorri eta sendoak, gehiago luzatzeko ahaleginetan ariko balitz bezala.

Orduan neskak arin biluztu ziren eta Ane Patxiren ondoan etzan zen, burua mutilaren sabelaren parean jarritz. Anek hatz erakusleaz eta erpuruaz Patxiren zakil-baba inguratzen zuen azala beheeratu eta ezkur baten kapelaren antzeko zakil-buru luzexka gorri-gorri agertu zen. Anek ahoan sartu eta begiak itxi zituen karamelu bero haren goxoaz hobeto gozatzeko. Patxiri barren-barrendik atera zitzaion hasperen luze bat.

Bitartean, Anak hankak pixka bat ireki zizkion eta potro-azalaren barrualdean zintzilik zeuden bi barrabilak miazkatzeari ekin zion, sutsu eta emeki, dakienaren tankera erakutsiz. Patxiren potro-azala maskal-maskal jarri zen eta barrabilak ia-ia uzkiraino jaitsi zitzaizkion. Bi nesken mihiek gozamenaz erotzen zuten gizona, zein baino zein trebeago eta goxoago ari baitziren. Konturatu ordukoxe, Aneren eztarrian behera isuri zuen sabeleko esne usua hasperenka, uzkiak hazia isurtzeko bultzadatxoetan laguntzen zuela.

-Baina nola? - A n e r e n harridura s i m u l a t u a - . Horren azkar?

-Sentitzen dut... -Patxi, irriz.

-Bai horixe sentituko duzula!- A n e k berriro eta berehala ekin zion makaltzen hasitako zakila masajeatzeari. Laster zen berau berriz tente eta buru gorri itsua gora harro-harro.

Anak ordura arte koskabiloak miazkatzeari utzi gabe, pixka bat gehiago zabaldu zizkion hankak lantegiko arduradunari eta hatz pare bat sartu zion uzkian emeki-emeki. Patxi geldirik egon zen Anaren hatzak uzkian barrena sentitzen zituela, eta hauek beren luze osoan sartu ondoren, barruan mugitzeari ekin zion neskak, Patxirengan zirrara berezia eta zorabiozkoa eraginez.

Gainera une hartan bertan Ane ohean zutitu, eta ordurako ongi gogortutako zakilean eseri zen hanka zabalik, esku batez Patxiren taketa bere potxorrera zuzen gidatuz. Busti-busti eginda zeukan Anek potxona, eta Patxi atsegin handia sentitu zuen kikirrio osoa haragi bero eta labainkorraz inguraturik eta estututa sentitzean. Hura dena gutxi balitz, Ane gora eta behera mugitzen hasi zen poliki baina jarraikor, eta Anak hatzak mutilaren uzkian maisuki mugitzen eta barrabilak miazkatzen jarraitzen zuenez gero, Patxi hurbil sumatu zuen hurrengo orgasmoa. Hartan bost minutuz aritu ondoren, sabelean zerbait mugitzen ziztziola sentitu eta hasperen bizi eta jarraikorak egiten hasi zen besterik ezinean, halaxe neskei ulertaraziz berriro isurtzeko zorian zegoela.

Baita hala gertatu ere! Begiak zuri-zuriak jarri zitzaizkion garun aldera begira, eta atsegin handiz isuri zuen bigarrenez. Plazerezko dardaren ondoren lasaitu zenean, bere gainean eserita zegoen Aneri etorri zitzaion gustua eta potxoneko ur beroa irristatu zen mutilaren

zakilean behera, beroni bero-sentsazio atsegina sortaraziz. Mutila non zegoen ere ez zekiela zegoen eta, pixkanaka-pixkanaka, zakilak indarra galdu eta makaldu egin zitzaion. Logura handia sortu zitzaion arduradunari, eta halaxe esan zien neskei. Berauek ohean sartu zuten maindire eta burusiez estaliz, eta haren ondoan etzan ziren alde banatan.

Baina neska zakilzale haiek ez zeukaten Patxi lokartzen uzteko batere asmorik, eta Ane musuka hasi zitzaion aurpegian. Anak taket bigunari heldu eta, hatz lodiaz bertako txulotxoan xirri eginez, eskua gora eta behera mugituz maisuki hasi zitzaion masturbaketan, ezker aldeko titiburua miazkatu eta tarteka goxokiro hozkatzeaz batera. Anek, berriz, musuekin jarraituz, ahoan eman zion luze bat eta mihia sartu zuen gizon gaztearen ahoan, bere mihiaz harena igurtziz eta laztanduz. Noizean behin zurrupatu egiten zion mihia, irentsi egin nahi izango balio bezala.

Honek hirugarrenez gogortu zuen Patxiren zakila eta berriro hasi zen hasperenka, orain artean bezala, neskei lan guztia egiten utziz. Esku bana jarri zien buruan eta, beren ileen leuna sentituz, oso gustura zegoela pentsatu zuen, hurrengo orgasmoa iristean bete-betean gozatzeko asmoz.

Eta iritsi zen, Anaren masturbatze bikainari eta Aneren musu beroei esker. Ez zuen aurrekoetan adina esperma isuri, baina isuritakoak berebiziko gustua eman zion.

-Jo orain niri larrua -eskatu zion Anak, artean larrutan egin gabe baitzegoen.

-Ez in dut, Ana..., benetan... -Patxik, begiak itxita. -Tira, tira! Nola ezingo duzu ba!

Eta bi neskek, Patxi Anaren gainean jarri zuten, larrutan egiteko jarrerarik ezagunenean. Ozta-ozta lortu zuten mutilari zakila laugarrenez gogortzea, eta ipurdia gora eta behera mugitzen hasi zen Patxi, behin Anaren aluan sartzea lortuz gero. Plazerezko hasperenak berriro sortu zitzaizkion eta atzera hasi zen gustua hartzen. Gainera, Ane eskuaz barrabilak laztantzen hasi zitzaion. Handik hamar minutura, lantegiko neskaren potxonean isuri zuen laugarren aldiz, baina zakiletik ezer gutxi atera zitzaiola iruditu zitzaion.

Lo seko geratu zen orduan nesken artean, eta Anek eta Anak irribarre egin zuten elkarri begira. Biei burutik pentsamendu bera pasa zitzaie la ez dago esan beharrik: Patxi ez zen zazpigarren orgasmora iritsi, lantegiko beste arduradun batzuk iritsi bezala.

Hurrengo asteetan, lantegian, Patxik behin baino gehiagotan eskatu zien bi neskei beren pisura joaten utz diezaiotela, baina Anak eta Anek, irribarrez eta berari hatz bat sudurretik emeki paseaz, beti esaten zioten ezetz, beti ezetz

## 1. ARIKETA. TESTU-IRUZKINA

Irakur ezazu Aitor Aranaren *Bi neska* ipuina, eta azter ezazu ea narrazio erotikoa idazteko aholkuak betetzen diren ala ez. Egin ezazu azterketa iruzkin gisara (erredaktaturik). Hona hemen gogoan hartu beharko zenituzkeen zenbait galdera:

1. Testu erotikoa ala pornografikoa iruditzen zaizu? Zergatik?
2. Ondo landuta dago pertsonaien izaera, ala ekintza-sexualen metaketa hutsa da?
3. Sinesgarria da? Zertan bai? Zertan ez?
4. Estereotiporik ageri al da?
5. Deskribapen sentsualik badago? Non?
6. Gehiegikeriarik ikusten al duzu? Non?
7. Mingarria izan litekeen egoera morbosorik ikusten al duzu?
8. Jakin dezake hasieratik irakurleak zer gertatuko den istorioan?
9. Ondo adierazita daude gizonaren eta emakumearen paperak?
10. Zer deritzozu formari? Uste duzu ondo idatzita dagoela?

## 2.ARIKETA. TESTUAK AZTERTZEA

Irakur itzazu Paddy Rekalderen *Little Arratia Klub* eta Patxi Zubizarretaren *Alarguntsa gaztearen hautagaiak* narrazioak, eta esan ezazu narrazio erotikoa idazteko aholkuak betetzen diren ala ez:

EZUGARRIAK	<i>Little Arratia Klub</i>	<i>Alarguntsa gaztearen hautagaiak</i>
	BAI/EZ Zergatik?	BAI/EZ Zergatik?
1. Erotikoa ala pornografikoa da?		
2. Narratzailea, denbora eta pertsonaiak ondo landuta daude?		
3. Tonu egokia darabil?		
4. Estereotiporik ageri da?		
5. Badago deskribapen egokirik?		
6. Sinesgarria da?		
7. Errepikakorra da?		
8. Ageri da egoera morbosorik?		
10. Ondo adierazita daude gizonaren/emakumearen sentipenak?		

## 5. LAN-SEKUENTZIA: EBALUAZIOA



## 1. JARDUERA. UNITATEAREN EBALUAZIO OROKORRA

Ondoko taula honetan adierazleak dituzue, literatura erotikoa lantzeko unitatean egindakoari lotuak. Esan zein den lortze-maila: mailarik altuena 5a izanik eta baxuena 1, biribildu hautatzen duzuen.

Orain ezagutzen ditut literatura erotikoren zenbait adierazpen.	1 2 3 4 5
Erotismoaren adierazpen literarioen inguruan hausnarketa egin dut.	1 2 3 4 5
Sormenezko lanak (ipuinak, olerkiak, SMSak...) idazteko interesa izan dut.	1 2 3 4 5
Literatura erotikoa ondare kultural gisa balioesten dut.	1 2 3 4 5
Literaturaren eta beste arte adierazpenen arteko loturak egin ditut.	1 2 3 4 5
Emandako gaia garatzeko, azalpen- testuei dagozkien ezaugarriak aztertu eta erabili ditut.	1 2 3 4 5
Adierazkortasuna lantzeko, hiztegia eta esamolde bereziei erreparatu diet.	1 2 3 4 5
Informazioaren teknologia berriak erabili ditut informazioa lortu eta prozesatzeko.	1 2 3 4 5
Ahoz eta idatziz lana planifikatu dut, kohesioa eta koherentzia-estrategiak zainduz.	1 2 3 4 5
Iritzia adierazteko, hainbat esamolde erabili ditut.	1 2 3 4 5
Bizkaierazko zenbait aditz eta berba landu ditut.	1 2 3 4 5
Talde-lanetan errespetatu dut ikaskideek egin eta esan dutena.	1 2 3 4 5

## 2.JARDUERA. AUTO-EBALUAZIOA

### UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?

- Literatura erotikoaren ezaugarriak
- Hiztegia
- Testua kohesionatzeko baliabideak
- Literatura erotikoaren eta beste arte adierazpenen arteko loturak: pintura, musika, komikia...
- ...

2. Zure ustez, ba al da landu beharreko beste edukirik? Zeintzuk?

3. Zein jardun kostatu zaizu gehien?

4. Zein jardun kenduko zenuke?

5. Azken ekoizpena prestatzeko, laguntza eta informazio nahikoa izan duzu?

6. Unitate honetan ikasitakoa baliagarri egingo zaizu?

7. Nola baloratuko zenuke amaitu berri duzun unitatea?

- Unitatearen edukiak: 1 2 3 4 5
- Erabilitako metodologia: 1 2 3 4 5
- Erabilitako materialak: 1 2 3 4 5
- Saioen erritmoa: 1 2 3 4 5

8. Zure ustez, nola hobetu daiteke unitate hau?

Iradokizunak:

### 3. JARDUERA. EBALUAZIOA. IKASLEAREN EKOIZPENA. AMETS EROTIKOA IDATZI

Irakur ezazu Paddy Rekaldere olerkia. Idatz ezazu 200 hitzeko amets erotiko bat olerki hau oinarritzat hartuta. Zirriborroa idatzi eta gero, berrius ezazu beheko taula erabilia.

Zigarroari kalada luze pare bat eman,  
irribarre egin eta,  
ero baten moduan,  
arineketan hasi da  
jirasol soro amaigabeen barrena.  
Zeru ezin zabalago honen urdina  
eta milaka lore potoloren horia.  
Nahasketa ederra, benetan,  
are ederrago  
Uxue, arineketan jirasolen artetik,  
prakak zelan erantzten dituen ikustean,  
eta nikia,  
ditzorroa eta kuleroak...  
eta kanposantu ondoko belardian,

erreka babesten duten makalen alboan,  
etzan egin da,  
hamaika mila mitxoletak inguratuta.  
Izerditan nator,  
eguzkiak gogotik jotzen du, aizue,  
baina, hala ere,  
xarma zoragarria dauka  
bere azal gazi-gozoa miazkatzeak,  
etengabe miazk...  
Eguzkia itzali,  
zerua erabat ilundu  
eta itzarri egin naiz,  
kagoendios!  
itzarri egin naiz.

Sex 40 Paddy Rekalde, 2000 <http://www.basquepoetry.net/poemak/0946.htm>

Idatzizko amets erotikoa ebaluatzen

IDATZIA EBALUATZEKO TXANTILOIA	BAI	EZ
?? Izenburu erakargarria du.		
?? Pentsamenduak eta sentimenduak interpretatu ditu.		
?? Narratzailea, denbora, pertsonaiak eta tonua ondo zainduta daude.		
?? Sinesgarria da.		
?? Informazioaren hurrenkera paragrafoetan ondo antolatu dut.		
?? Gramatika, ortografia eta puntuazio-ikurrak zaindu ditut.		

## BIBLIOGRAFIA

- AILLET, François: *Kaiku haiku*, Maiatz, Baiona, 1999.
- AL-KALI, Mohammed: *Amodio/firaq* in "Hau da ene ondasun guzia", Txalaparta, Tafalla, 1999 (euskaratzailea, Joseba Sarrionandia).
- ARANA, Aitor: *Ipuin lizunak*, Kriseilu, 1994.
- ARANA, Aitor: *Gay Hiztegia.*, Txalaparta, 2005.
- ARISTI, Pako: *Libreta horiko poemak*, Susa, 2003.
- ARISTI, Pako: *Deborah hondartza bakarti batean*, Auskalo, 2002.
- ASKOREN ARTEAN: *Hizkuntzen trataera bateratua* bloga.  
<http://trataerabateratua.wordpress.com/>
- BALDA, María Luisa: *Catálogo de emociones*, Basarai, 2002.
- BORDA, Itxaro: *Jalgi Hadi Plazara*, Susa, 2007.
- ELEXPURU, J.M.: "Literotura bildumaren zuzendaria" Elkarrizketa. In [www.txalaparta.com/upload/revistas/12zkia.pdf](http://www.txalaparta.com/upload/revistas/12zkia.pdf)
- ELEXPURU, J.M: *Euskal lizunkerien antologia*, Txalaparta, 1999.
- ETXEPARE, Bernart: *Linguae vasconum primitiae*. In [www.klasikoak.armiarma.com](http://www.klasikoak.armiarma.com)
- GONZALEZ, Sonia. *Ugerra eta kedarra*, Txalaparta, 2009.
- GURRUTXAGA, Amaia: *Amaitu dezagun behingoz!*, Susa 28, 1992.  
"Kamasutra" in <http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/user/anon/page/artikulua?gid=125815>
- IRAETA, Ainara: "Hitzen gozamina", El País, 2003/03/17
- ITURBE, Arantza: "Hay alguien que desea conocerte" in <http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/country/null/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=28162>
- JELLOUM, Tahar Ben: *Bakarkako isolamendua*, Susa, 1990.(euskaratzailea, Bego Montorio).
- KHAYYAM, Omar: *Rubaiyatak*, Erein, 2001. (euskaratzailea, Joxemari Iturralde).
- LANDABASO, Goizalde: *Jat*, Elea, Bilbo, 1980.

- MEABE, Miren Agur: *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri, 2002.
- MEABE, Miren Agur: *Azalaren kodea*, Susa, 2000.
- MENDIGUREN ELOSEGI, Xabier: *Arima enkoniatuak*, Elkar, 2006.
- MINTEGI, Laura: *Ecce homo*, Txalaparta, 2009.
- MIRANDE, Jon: *Haur besoetakoa*, Erein, 2007.
- MIRANDE, Jon: *Poemak*. In [www.klasikoak.armiarma.com](http://www.klasikoak.armiarma.com)
- MONTOIA, Xabier: *Gasteizko hondartzak*, Susa, 1997.
- OIHENART, Arnaut: *Oihenarten gaztaroa neurtitzetan*. In [www.klasikoak.armiarma.com](http://www.klasikoak.armiarma.com)
- OSORO, Jasone: *Korapiloak*, Elkarlanean, 2003.
- PUJOL, Carlos: *Hai-kais del abanico japonés*, Pamiela, Pamplona, 1998.
- REKALDE, Pady: *Sex abaroa*, Txalaparta, 2000.
- RIMBAUD, Arthur: *Poèmes/Poemak*, Erein, 1993. (euskaratzailea, Mikel Lasa)
- RIMBAUD, Arthur: *L'Etoile a pleuré rose. Izarrak arrosa euria*. <http://www.armiarma.com/emailuak/erein/rimb223.htm> (euskaratzailea, Mikel Lasa)
- RODRIGUEZ, Eider: *Eta handik gutxira gaur*, Susa, 2004.
- SUAREZ, Castillo: *Span poemak*, Elkar, Donostia, 2004.
- SUAREZ, Castillo: *Bala hutsak*, Elkar, Donostia, 2006.
- SUAREZ, Castillo: *Souvenir*, Elkar, Donostia, 2008.
- TELLERIA, Alberto: *Berbeta berua*, Badihardugu Euskara Elkarte, 2003.
- UBALDO RIBEIRO, Joao: *Buda zoriontsuen etxea*, Txalaparta, 2002. (euskaratzailea, Karlos Zabala Oartzabal).
- URDANGA, JUSTO: *Egutegi erotikoa*, Hiria Liburuak, 2004.
- YOURCENAR, Marguerite: *Erremateko tiroa*, Alberdania, 2007. (euskaratzailea, Josu Zabaleta).

## INTERNETEKO BIBLIOGRAFIA:

<http://bbk.armiarma.com/linterna/>

BBK taldearen aldizkari digitala.

<http://www.instantesdeficcion.com.ar/Inmortales/Girondo.htm>

Oliberio Girondoren poema

<http://www.armiarma.com/emailuak/erein/rimb200.htm>

Rimbaud-ren poemak

<http://euskalpoesiablagabloga.blogspot.com/2007/02/poema-laburraren-alde.html>

Haikuak

<http://www.elrincondelhaiku.org/int12.php>

Poeta batzuen haikuak, Borges, Octavio Paz,...

<http://marko.artblog.fr> EUSKAL KAMASUTRA

<http://www.youtube.com/watch?v=ZOB9-LGRK1A> Gatibu: *eztanda egin arte Rock start*

<http://www.youtube.com/watch?v=9bNwBOWKUvk> Gatibu *musturrek sartunde*. 3:50

<http://www.youtube.com/watch?v=Qhr1-8dOyRU> Literatura erotikoaren inguruan.  
Pornografia/Erotismoa... 3:03

<http://www.youtube.com/watch?v=zzKFhUIxkz4&feature=related> Manga Komiki  
erotikoa, irudiak besterik ez.

[http://www.youtube.com/watch?v=Xn\\_PViufTRk&feature=related](http://www.youtube.com/watch?v=Xn_PViufTRk&feature=related) Sade Markesaren  
irudia. Portugesez 3:29

[http://www.youtube.com/watch?v=gInCO\\_bHwoU&feature=related](http://www.youtube.com/watch?v=gInCO_bHwoU&feature=related) Kamasutra  
liburuaren inguruan. Portugesez. 4:32

<http://www.youtube.com/watch?v=xikGWvCzbcl&feature=related> Pintura eta literatura  
erotikoa unibertsala, oso ona baina portugesez 3:41

<http://www.youtube.com/watch?v=IHbxlScne-o&feature=related> Japoniako arte  
erotikoa. XIX.mendeko grabatuak eta pinturak. 3:13

[http://www.youtube.com/watch?v=kJB\\_lzoTdZo](http://www.youtube.com/watch?v=kJB_lzoTdZo) Lucia Etxebarriaren hitzaldia El Sexo  
contado por mujeres liburuaren aurkezpena dela eta. 5:02 minutu

<http://www.youtube.com/watch?v=mqrNQ4wt-DY&feature=fvw> Sade Markesaren  
gaineko bideoa. Irudiak baino ez. 4:01 minutu

<http://www.youtube.com/watch?v=yMgwdVAFS64> Artea eta erotismoa. Eskultura eta pinturan zehar egindako bidaia erotikoa. Oso aproposa. 4:07 minutu

<http://www.youtube.com/watch?v=oGBjcStxWlc> Dino Humberto Singarelaren poema erotikoa , Suplica izenekoa 2:23 minutu

[http://www.youtube.com/watch?v=4doCF8DOP\\_I](http://www.youtube.com/watch?v=4doCF8DOP_I)  
Zakilixut. Zakilaren kaligrama eta Apollinaireren aipua: "Deese maite zaitut, nire irudimenean baino ez bazaude ere". 00:45 segundo.

<http://perso.wanadoo.es/cespejo/satiricon.htm>

[http:// www.epdlp.com](http://www.epdlp.com)

[www.ikasbil.net](http://www.ikasbil.net)

[www.wikipedia.org](http://www.wikipedia.org)

[www.elboomer.com](http://www.elboomer.com)

[www.papelenblanco.com](http://www.papelenblanco.com)

[www.amediavoz.com/arcipreste](http://www.amediavoz.com/arcipreste)

[www.identidades.org/literatura/samaniego](http://www.identidades.org/literatura/samaniego)

[www.criaturasasimagicas.wordpress.com](http://www.criaturasasimagicas.wordpress.com)

[www.ehgam.org/index2.htm](http://www.ehgam.org/index2.htm)

[www.euskarabila.org/hurrengoak.htm](http://www.euskarabila.org/hurrengoak.htm)

[www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)